



HILEKO ZOZKETAK / 10

# 'Karmele', gaurtik aurrera zinema aretoetan

Eneko Sagardoy aktore durangarrak Txomin Letamendi hezurmamitu du 'Karmele' pelikulan; gaur estreinatuko dute zinema aretoetan / 13



Mañaria erreken jaitsiera, iaz.



## DURANGARRAK JAIETAN MURGILTZEKO PREST

Gaur iluntzean lehertuko da jaia Durangoko kaleetan. Udaletxeko txupinazoa 20:00etan izango da, eta txosnetakoa 21:00etan. Herritarrek asteburu luze bi izango dituzte aurretik / 4

LUCIA MERUELO



**Taher Ali: "Estatu  
bien irtenbidea  
inperialismoak  
asmatu da"** / 2-3



**SCHMIDT**  
SUKALDEAK ETA ETXETAKO ALTZARIAK

Urriaren 1etik 31ra  
**URTEURREN ESKAINTZAK**

**%20KO DESKONTUA**  
zure altzarietan\*

\*Eskaintza bakarrekoa sukaldeko altzariz gurtzetan. Irus/ baldintzak parte hartzen duten dendetan zure Schmidt saltzainarekin.

# "Estatu bien irtenbidea inperialismoaren ipuina da"

**TAHER ALI** ABOKATUA ETA ATENEO PALESTINO ELKARTEKO KIDEA

Taher Ali geratu barik dabil Euskal Herriko luze-zabalean berbaldiak ematen, Palestinan gertatzen dabilena argitzeko. Joan zen astean, Abadiñon izan zen

**Ekaitz Herrera** PALESTINA

Madriilen jaio zen, 1990ean, eta palestinarren exilioko bigarren belaunaldiko kidea da. Baina Gazan ditu zuztarrak, han di-tuelako bihotza eta familia. Gaur egun Euskal Herrian bizi da, bost urte daramatza hemen, eta, abokatua izateaz gainera, Ateneo Palestinoko kidea da. Diasporan bizi diren palestinarrak osatzen dute elkarte hori, eta antiinperialismoa, feminismoa, antiko-lonialismoa zein antisionismoa dituzte oinarri. Taher Alik berbaldiak ematen ditu Euskal Herriko luze-zabalean, Palestinan gertatzen dabilena argitzen laguntzeko. Joan zen astean Abadiñoko Gaztañodi elkarte gastronomikoan eman zuen berbaldia, Isiotu kultur elkartearen aterkipean.

**Urte bi joan dira Israelek Gazaren kontrako erasoaldiak modu nabarmenean gogortu zituenetik eta genozidioari izen-abizenak ipini zitzaizkionetik. Ordutik hona, egon da Palestinaz akordatu ez zaren egunik?**

Ez, Palestina nire izatearen barruan dagoelako. Egia da bizitzan zehar desberdin bizi izan dudala gertatzen zebilena, baina 2008ko *Berun Urtua* operazioaren ondoren, nire izate palestinarrak nire bizitzaren kontrol osoa hartu zuen. Gainera, kezka identitarioaz gainera, azken urte bietan kezka familiarrak ere gailendu zaizkit, familia daukat-eta Gazan. Familiako kideak galdu ditut urte bi

hauetan, eta kezka konstantea bizi dut.

**Une honetan, beraz, familia dauka-zu Gazan.**

Bai. Osaba-izekoak ditut, lehen-gusu-lehengusinak, eta baita horien seme-alabak ere. Familia palestinarrak oso familia handiak gara.

**Eta zer moduz daude? Baduzu kon-takturik eurekin?**

Hartu-emanak oso-oso apurrak dira. Internet ez da beti erabilgarri egoten eta familiei ez zaie gehiegi gustatzen euren gabeziak kontatzea. Euren komunikazioak bizirik daudela adierazteko baino ez dira izaten. Oso egoera txarra bizi dute, baina hori ez da hango biztanleen artean txarrrena. Izan ere, batzuk atzerrian bizi gara eta dirua hara bidalita lagundu diezaiekegu. Azken finen, elikagaiak estraperloan

**"TRUMPEN PLANA HASIERATIK EGON DA PALESTINARROK EZIN ONARTZEKO MODUAN DISEINATUTA"**

**"AEB-ETAKO ASKOK EZ DUTE EUREN HEGEMONIA ISRAELEGAZ HIPOTEKATU GURA"**

erosita, kilo bat azukre 70 euroan adibidez, hobeto bizirik iraun daiteke, laguntza humanitarioko ilaretara joan eta tiro bat jaso barik.

**Eguen goizean albiste honegaz itzartu ginen: Israelek eta Hamasek bake akordioaren lehenengo fasea sinatu dute. Zelan baloratzen duzu?**

Ez da bake akordio bat, su etenera gerturatzeko marko bat baino. Eta ez da Israelen eta Hamasen akordio bat, Ameriketako Estatu Batuenak baino. Izan ere, momentu honetan, AEBak Israelen gainetik jotzen dabilta. Zergaitik? Trump egundoko higadura jasaten dabilelako bere herrialde barruan, eta al baitik arinen irabazi gura duelako bahituak askatzearen tantoa. Netanyahu, oster, ez du halakorik gura. Israelek nazioartearen presio handia du une honetan, eta tentsio giroa inguruko herrialde arabiarretara zabaltzen hasi da, Egiptora gehienbat. Gatazka Egiptoren eta Israelen artera zabaltzeko arriskua dago. Horrenbestez, era honetan ulertu behar da Trumpek iragarritako akordio hori: erresistentzia palestinarrak Trumpi keinu egitea erabaki du, hor Israel sakatzeko aukera ikusi duelako.

**Zer deritzozu Donald Trumpen hoge-i puntuko planari?**

Erridikulua dela deritzot, lerdokeria dela. Plan hori hasiera-hasieratik egon da diseinatuta ez



Taher Ali.

onartzeko, ezin delako onartu. Baldintza umiliagarriak jasotzeaz gainera, planak gobernatzaile britainiar bat ezartzea ere zehazten du. Erridikulu gorena da. Proposamen hori Palestinako erresistentzia bazterrean uzteko ahalegin bat baino ez da izan, baina erresistentzia palestinarrak osoak, Hamasek tartean, hori baino jokabide zuhurragoa izan du. Presoak trukatzeko proposamena egin du, nahiz eta hedabide askok zabaltu duten palestinarrak Trumpen plana onartu dugula. Mugimendu ugari gertatzen dabil, eta iruditzen zait Israel jasaten dabilen presioari zor zaiola hori. Izan ere, Israel gainbehera oso-osoan sartuta dago.

**Abadiñoko berbaldian ere baieztapen hori egin zenuen. Zeintzuk arrazoi daude Israel kolapso egoeran dagoela baieztatzeko?**

Arrazoiatariko bat AEBetan dago, egundoko arrakala zabaltzen dabilelako hango inperialisten artean. Inperialisten zati bat ez dago AEBen hegemonia hipotekatzeko prest zer eta Israeli laguntzearen, baina beste zati bat bai, badago prest horretarako. Kontua da Israel mantentzeak geroago eta kostu ekonomiko handiagoa ekartzen badu horrek harentzako laguntzak gutxitzea ekarriko duela, eta, ondorioz, herrialdeak aukera gutxi izango duela bere kabuz aurrera egiteko. Beste arrazoiatariko bat 2023ko urriaren 7an ikusi genuen. Israel Lehen Munduko herrialde modura ulertzea egun hartan bertan amaitu zen, herritarrek ez dutelako segurtasun sentsaziorik ordutik. Hori Libanok, erresistentzia palestinarrak zein Yemenek frogatu dute, erasoak eginda gai direlako kolonoak babesle-

kuetara bidaltzeko. Baina batez ere Iranek erakutsi du hori. Iranek Israelgo sistema militarra birrintzeko gai dela erakutsi du uda honetako hamabi eguneko gerran. Eta sistema defentsiboa guztiz birrindu ez badu, Israel potentzia nuklearra delako eta indarrez garaitu ezin delako da. Aukera asko dago Israel hiltzen ikusteko. Edozelan ere, tamalez, hau ezin da izan baikortasunerako mezua.

### **Eta zelakoa da Israel barruko giroa? Arrakalak daude hango iritzi publikoan?**

Israelgo biztanleria ardatz eta interes askotan zatituta dago. Batetik, kolonoen artean arraza bereizkeria dago, hau da, zenbat eta zuriagoa izan hobeto, eta zenbat eta beltzaranagoa izan, txartoago. Bestetik, erlijioari dagokionez, tentsioa dago laikoen, ortodoxoen eta ortodoxo izatetik haragokoen artean. Eta ekonomikoki ere egundoko bereizketa dago. Legez kanpoko kolonietan, Zisjordanian adibidez, kolonoak diru laguntzei eskerrak bizi dira, eta ez daukate Israel barruko guneetan duten bizi maila bera, Tel Aviven kasurako. Horrek inbidia, gatazkak eta higadura sortzen ditu kolonoen artean. Israel oso estatu garestia da eta Europar Batasunari eta AEBei eskerrak bizi da. Herrialdea Zainketa Intentsiboetako Unitatera konektatuta dago eta bere bizi-konstanteak kanpotik datorkion diru iturriari eskerrak mantentzen dira. Diru sarrera horiek etengo balira, inplosioa eragingo litzateke. Eta genoizidioan gehiago eragin eta Israel nazioarteko zigorrak helduko balitzaizkio, pertsiana jaitsi beste erremediorik ez luke izango. Europa eta AEB puntu horretara ailegatzeko beldur dire-

la iruditzen zait eta hor ulertu behar da estatu bien aukera irtenbide modura aurkeztea. Aldi berean, hor ulertu behar da Mendebaldeak Israel zigortzeko darabilen epelkeria.

### **Estatu bien aukera aipatu duzu. Zer deritoxo aukera horri?**

Estatu bien irtenbidea inperialismoak sorturiko ipuina da, palestinar erresistentziari beldurra dion aldiro erabiltzen duena. Izan ere, hori 1910eko hamarkadatik hona gabiltza ikusten; soluzio hori altxamendu palestinarren bat egon den aldiro entzun dugu. Al Fatah gaz ikusi genuen, Palestinako Nazio Askapenerako Mugimenduekin ere bai, eta baita intifadekin ere. Azken urteetan armairuan gordeta egon den ideia da, urriaren 7ko erasoen ondoren berriro ere mahai gainean ipini dutena. Aukera hori sekula ere ez da gauzatuko, Israelek, adibidez, ez duelako onartuko. Iraganean bai, onartu zuen, baina Nazio Batuen zatikatzeko planak Palestina kolonizatzeko aukera eskaintzen ziolako, hain zuzen ere.

### **Palestina inguratzen duten herrialde arabiarren jarrera epela den sentipenik baduzu?**

## **"HERRIALDE ARABIARRAK KOLABORAZIONISTAK DIRA MENDEBALDEKO HERRIALDEEKIN"**

## **"ISRAEL ZIU-N DAGO, EUROPA REN ETA AEB-EN LAGUNTZARI LOTUTA"**

Epel jokatu baino gehiago, inperialisten beharrezko kolaboratzaileak direla iruditzen zait. Pentsa, Gazako zerrendak Egiptogaz muga egiten du, eta Egiptok blokeo kriminala gauzatu izan du, laguntza humanitarioa sartzea ekidinda. Erregimen arabiarrek nahita daude hor ipinita Israel zaintzeko. Hau da, Israel da babestu beharreko altxorra, eta inguruko herrialde arabiarrek hura babesteko harreria. Horregaitik kontuan izan behar dugu Israelen ondoren Egipto dela AEBetatik diru laguntzarik gehien jasotzen duen herrialdea. Jordaniara jotzen badugu, hango erregea britainiar hartu dezakegu, bere aita britainiarrek ipini zuten agintean eta. Siriak kolaboratzailea ez zen sistema izan du orain urte batzuk arte, baina birrindu egin zuten. Eta Libanon ez diote herrialdeari garatzen uzten, horrek Israelen interesekin talka egingo lukeelako. Salbuespena Yemen da. Etenik barik lagundu dio Palestinari. **Abadiñoko berbaldian honako hau ere baieztatu zenuen: "Israel Europaren kolonia bat da Palestinan".** Halantxik da. Israel kolonia bat da, eta era horretan ulertu behar da. Biztanleen zati handi bat Israelgo pasaportea darabilten palestinarrek dira, eta, horiez gainera, herrialde barruan egiptotarrak, magrebtarrak, irakiarrak eta yemendarrak daude. 1948aren ondoren, denak alde egitera behartu zituzten eta geratu zirenei kolpetik kendu zizkieten hizkuntza eta kultura arabiarrek. Mendebalderatze prozesua oso azkarra izan da eta elite ekonomikoen artean zuriak dira jaun eta jabe. Israel europar modura agertze horren adierazle da, hain zuzen ere, herrialdea nazioarteko hain-



Taher Alik joan zen asteen Abadiñon emaniko berbaldia.

bat txapelketatan Europaren aterkipean egotea. Eurovisionen, adibidez. Era berean, Palestinako Mediterraneoko tokiko floragaz egiten dabilzana aipatu daiteke. Tokiko basoak eta zuhaitzak kentzen dabilza, Europa erdialdeko espezieak sartzeko.

### **Boikoterako deiak ere sarri entzuten dira. Eraginik badute?**

Boikotak oso efikazak dira. Enpresek, multinazionalak, galera handiak jasan dituzte herrialde konprometituetan, Mendebaldetik kanpoko herrietan gehienbat. Ere mu horretan eragin behar dugu, kontsumo boikotean, baina baita Israelek bere burua finantzatzeko edo publizitateko erabili ditzakeen eremuetan ere. Eta presio hori alderdi politikoetan, instituzio publikoetan, unibertsitateetan, kirolean zein auzo elkarteetan praktikatu behar dugu.

### **Zein da Palestinaren irtenbidea?**

Irtenbidea erbesteratutako errefuxiatu guztiak euren sorterrira bueltatzea da. Halantxik diote, gainera, Nazio Batuen erresoluzioek. Eta hori izan zen, hain zuzen ere, Israel NBEan onartua izateko baldintza: errefuxiatu palestinarrei sorterrira bueltatzen uztea. Eta sorterrira bueltatzea diot, ez Gazara edo Zisjordanian. Hau da, Tel Avivera barik, Jaffa jatorrizko hirira bueltatzea diot. Hori martxan ipintzen badugu eta hori gertatu bitartean erresistentzia palestinarri laguntzen badiogu, Israelek bere ibilbidea amaitu beharko du. Izan ere, egoera horren ondoren hauteskunde demokratikoak egingo balira, 14 milioi herritar palestinar eta 6 milioi kolono egongo lirateke. Eszenatoki horretan, egitura kolonial eta jazartzaila guztiak amaituko lirateke.

**PABILIOIA SALGAI**  
lurretan, Mercadona ondoan

**1.190m<sup>2</sup>**

**ZARATE ELEXPE**  
ERAGILEAK

Tel.: 94.681.66.73  
Mug.: 649 40 26 23  
zarateylexpe.com

# Durangarrak Pantxikeren eta Patxikotxuren zain

Durangoko kaleetan gaur iluntzean lehertuko da jaia, udaletxeko zein txosnaguneko txupinazoezin. Lehenengoa 20:00etan izango da eta San Faustoko auzo elkarteak botako du txapligua. Bigarrena 21:00etan izango da; Gaztetxeko kideek botako dute

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangarrak gertu daude jaie-tarako, baina ezingo dituzte ospakizunak behar den moduan hasi jaietako pertsonaien bedekapenik barik. Patxikotxu eta Pantxike, Pantxike eta Patxikotxu, arratsalde honetan helduko dira herriko kaleetara, jaiak ailegatu direla lau haizeetara zabaltzera. Patxikotxu San Fausto auzotik irtengo da kalejiran, 19:00etan, eta udaletxeko plazan hartuko du lekua, auzo horretako bizilagunen txupinazoa bertatik bertara ikusteko. Pantxike txosna batzordeko eragileekin irtengo da kalejiran Santa Ana-tik, 19:30ean. Alde Zaharreko kaleak zeharkatu eta gero, txosnaguneko eszenatokian egongo da, Durangoko gaztetxeko kideen txapligua ikusteko.

Behin irekiera ekitaldiak egin-da, durangarrek zoramenerako asteburu luze bi izango dituzte aurretik. Gaur, barikua, Bulego-ren kontzertuaz (Ezkurdi) zein



lazko udaletxeko txupinazoa, plaza jendez lepo. UNAI OLASO

Zeker, Nekktar eta Reder taldeen zuzenekoek gozatu ahal izango dute (txosnetan). Bihar, sukalki txapelketako giroa (Landako Gunea), gazte eguneko bazkaria (txosnagunea) eta San Faustoko bizilagunen herri bazkaria izan-

go dituzte zain. Urriaren 13an, astelehena, herriko egun handia ospatuko dute, San Fausto eguna. Baina hori baino lehenago, domekan, txosnetako eragileek Palestinagazko elkartasun eguna egingo dute.



Udal arduradunek eguaztenean aurkeztu zuten protokoloa.

## Erasoen kontrako protokoloa

Durangoko Udalak jaietako protokoloa aurkeztu du, indarkeria matxista prebenitzeko zein erasoren bat gertatuko balitz hari aurre egiteko. Hainbat neurri zehaztu dute. Batetik, 24 orduko arreta telefonoa ipiniko dute (**747 459 584**). Telefono zenbaki hori urriaren 10ean, 11n, 12an, 13an, 17an eta 18an egongo da martxan, eta erasoren bat jasan dutenek zein lekukoek erabili ahal izango dute. Kasu bietan, deitzaileek psikologo espezializatuak topatuko dituzte telefonoaren beste aldean.

Bestetik, Puntu Morea ipiniko dute martxan. Landako Gunearen ondoan egongo da, txosnetan, urriaren 10ean, 11n, 12an, 13an, 17an eta 18an, 20:00etatik 02:00etara. Bertan, profesional espezializatuak egongo dira, biktimei zein lekukoei arreta, laguntza zein aholkularitza eskaintzen. Azkenik, baten batek arreta pribatua beharko balu, Andragunean horretarako gune espezifikoak izango duela iragarri du Jesica Ruiz alkateordeak.

Protokoloa beste hainbat mezugaz lagunduta ere egongo da. Mezuok herri osoan zehar eta Bizkaibuseko markesinetan ipiniko dituzte ikusgai. "Gorputz, adierazpen eta janzkera guztiak ongi etorriak dira!" izango da bata, eta "Eraso matxistak ez dira txantxa. Zure lagunen irain eta iruzkin matxisten aurrean ez izan konplize!" bestea.

## Sindikatuak Palestinaren aldeko lanuzteak antolatu dituzte

LAB, CCOO, Steilas, Solidari, Etxalde eta Hiru sindikatuak egingo dute batetik, eta ELAk bestetik

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Hego Euskal Herriko sindikatuak lanuzteak iragarri dituzte Israel Palestinako herriaren kontra egiten dabilen genozidioa salatzeko. LAB, CCOO, UGT, ESK, Steilas, Etxalde eta Hiru sindikatuak lanuzte partzialak egingo dituzte urriaren 15ean, Israelen "etenik bako kolonizazioa salatzeko" eta Euskal Herriko zein nazioarteko erakundeei "hartu-eman komertzialak etetea" eskatzeko. Gainera, LABek eta Steilasek egun osoko lanuztera deitu dute hezkuntza arloan.



ELAren prosteta joan zen barikuan.

ELAk ere Israelen genozidioa salatuko du, eta estatu haren kontrako neurri politiko eta ekonomikoak hartzea eskatu die enpresei eta instituzio publikoei. Joan zen barikuan Durangon egin zuten mobilizazioa: "Israeli ezin zaio ezer erosi edo saldu; boikotak izan behar du palestinarren aurkako genozidioa geldiarazteko tresna nagusia", azaldu zuten. Izan ere, "langileriaren euro bat ere ezin da Israelen interesen mesedetan erabili", ELAren iritziz. Eta gaineratu dute: "Israeli ez diote ezer erosi edo saldu behar; ez gobernuak, ez enpresek". ELAk CIG eta Inter-sindical sindikatuekin batera egingo du lanuztea, bai Euskal Herrian eta baita Galizian eta Katalunian ere. Lurralde horietan Madril baino aldarrikapen "zorrotzagoak eta eraginkorragoak" egiten direla esan du ELAk.

## Udalak helegitea ipiniko dio PERIaren kaltegarritasun epaiari

"Gardentasunagazko eta interes publikoagazko konpromisoa" berretsi gura dute helegiteagaz

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Durangoko Udalak jakinarazi duenez, epai batek ebatzi du PERI Trenbideko alkate erabakia ez dela kaltegarria. Eta sententzia gobernu taldeko kideek —EAJk eta PSE-EEk— urteetan defendaturikoa izan arren, gobernu taldeak helegitea ipintzea erabaki du. Modu horretan, "gardentasunagazko eta interes publikoagazko duen konpromisoa" berretsi gura dute. Gaineratu dutenez, bigarren epaiak ere euren alde egingo duela aurreikusi dute gobernu taldeko kideek. Auzia ulertzeko, urte

batzuk atzera egin behar da. Udalak gogorarazi duenez, 2020an, orduko gobernu taldeak auzitegi-tara jo zuen PERI-Trenbidearen partzelazioa herriarentzat kaltegarria zelakoan. Auzi hartan, tren geltoki zaharraren orubea birpartzelatzeko proiektua onartu zen behin betiko. 2020ko salaketaren epaia uztailaren 29an kaleratu zela jakinarazi du udalak. Eta "epaiaren edukiagaz ados egon arren", helegitea ipiniko dutela iragarri dute, "durangar guztien interesak segurtasun juridiko osoz" defendatzeko.



Iraia De la Torre eta Intza Gurrutxaga.

# EHEk "pizkunde berri bat" sortzera deitu du

Euskal Herrian Euskarazek "esnatzera" deitu du, legedi baztertzailerei "desobedientzia" egitera eta "euskaldun izatearen harrotasuna" bultzatzera. Horretarako, manifestazioa egingo dute Durangon. Abenduaren 6an izango da

**Ekaitz Herrera** DURANGO

Euskal Herrian Euskarazek Euskararen Errepublikaren aldeko manifestazioa deitu du. Abenduaren 6an, Durango-ko Azokako egunetan, mobilizazioa egingo dute "hizkuntza

nahiz nazio kontzientzian bizi dugun geldotze aroa eten eta indarraldirako bideari ekiteko". Hain zuzen ere, Euskal Herrian Euskarazek "esnatzera" deitu du, legedi baztertzailerei "desobedientzia" egitera eta "euskal-

dun izatearen harrotasuna" bultzatzera. Eta euskaltzale guztiak deitu dituzte horretarako. Abenduaren 6an 13:00etan Landako Gunetik irtengo den manifestazioan parte hartzeko deia egin dute.

Iraia de la Torre eta Intza Gurrutxaga bozeramaileek nabarmendu dutenez, azken hamarkada bietan "ahuldu" egin dira euskal komunitatearen "nazio nahiz hizkuntza kontzientziak", "asimilazioak" eta "euskara salbatuta dagoen uste faltsuak" eraginda, besteak beste. Baina errealitatea "beste bat" dela diote, eta euskara "normalizatuta egotetik urrun" dagoela gaineratu.

Halaber, estatu propio baten beharrian ere egin diote erreferentzia, Frantziako eta Espainiako estatuak euskara biziberritzeko tresnak "kamus-ten" dabilatzalakoan: "Horregaitik, Euskal Herri euskalduna eraikitze bidean ezinbesteko ikusten dugu independentzia, Euskararen Errepublika", azaldu dute.

## "Diskurtso arrazistak"

Euskal Herrian Euskaraz iritiz, munduak "krisi anizkoitzen garaia" bizi du eta marko eskuindarra "lekua irabazten dabil" egiturazko arazoan "alternatiba" legez. Testuinguru horretan, "askapenerako eta justiziarako tresna legez" aldarrikatu dute euskara, bai zapalkuntzak gaitzeko, bai horien aurka borrokatzeko. Bide batez, "euskaltzaleen artean azkenaldian ugaritu den diskurtso arrazista zein xenofobo oro irmotasunez" gaitzesten dutela eta gaitzesten jarraituko dutela iragarri dute.

## Ibaizabal erreka garbitu dute Francisco Ibarra aldean

Landare hondakinak erretiratu dituzte, ibaiaren emaria berreskuratu eta arriskuak saihesteko

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Durango eta Iurretako udalek Ibaizabal erreka ibilgua garbitu dute egunotan, Durango Francisco Ibarra eta Iurretako Bidebarrieta kaleen arteko zubipean. Azken hileotan adarrak, zuhaitz enborrak eta beste hondakin natural batzuk pilatu dira eremuan, eta horrek erreka igarobidea txikitu du. Egoerak uholde arriskua handitu deza keela eta, hondakinak erretiratu eta ibaiaren fluxu arrunta berreskuratu gura dute. URA Agentziak koordinatuko ditu lanak. Udal biek ingurune naturala zaintzeko konpromisoa berretsi dute.



Francisco Ibarra kaleko zubia. D.U.

## Futbol amerikarraz euskaraz gozatzeko taldea sortu dute

Durungaldeko eta Euskal Herriko hainbat zale elkarregaz saretu dira kirol horren aktualitateaz euskaraz aritzeko

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Futbol amerikarra Ameriketako Estatu Batuetan eta Kanadan jokatzen da gehienbat, baina muga horietatik kanpora ere zale ugari du, baita Euskal Herrian ere. Horren erakusle da *NFL Euskaraz* taldea, futbol amerikarreko aktualitatea, albisteak, partiduak zein zurrumurruak euskaraz komentatzeko sare. Euskal Herriko 50 bat lagun daude komunitate horretan batuta, eta euretariko bost eskualdekoak dira. "Taldea informal eta zabala gara. Futbol amerikarra maite dugun euskal-

dunak gara denok, eta sarean komentatzen ditugu kirol horretako aktualitatea zein bakoitzaren iritzia", azaldu du Egoitz Etxeandia zornotzarrak. Bera da taldeko kide eta bultzatzaileetarikoa. "Badakigu kirol honek geroago eta jarraitzaile eta *freaky* gehiago duela Euskal Herrian. Hori dela eta, taldea zabaldu gura dugu. Ederra da *frikieria* hori era zabalean komentatzea eta elkar ezagutzen ez dugun euskaldunok pasio honen barruan antolatzea", azpimarratu du. Interesdunek *NFL euskaraz* Telegram kontuan



Futbol amerikarreko norgehiagoka bat. KEITH JOHNSTON

bat egin dezakete komunitateagaz. X sarean ere badute kontua.

Taldean, aurrez aurreko hitzorduak ere egiten dituzte. Zornotzan egin dituzte batzuk, baita Donostiako elkarte gastronomikoetan ere. "Laster Madri-

lera ere joango gara, Santiago Bernabeu estadioak NFL ligako partidu bat hartuko du-eta azaroan. Zortzi kide goaz, asteburu-pasa. Aurrez aurreko hitzordu gehiago ere antolatu gura dute.

## Ibilaldi osasungarrien programari berrekin diote Durangon

**E.H.** DURANGO

Ikasturte berriagaz, Durango adinekoek ibilbide osasungarrien programa aktibatu dute. Hemen-dik aurrera, eguazteno-eguazteno batuko dira, jarduera fisikoko teknikari baten laguntasunagaz bost kilometroko ibilbideak egiteko. Kurutziagako gurutzean batuko dira, eguaztenetan, 09:30ean. Eta astelehenetan ibilketak nordikoa praktikatzeko irteerak izango dituzte, Bizidun elkartearen eskutik. Zortzi-hamar bat kilometroko ibilbideak izango dira. Horiek ere 09:30ean hasiko dira, Kurutziagako iturritik. Interesdunek 944 657 451 telefonora deitu edo [adintek@durango.eus](mailto:adintek@durango.eus) helbidera idatzi dezakete.

# Elorrio martxan tentsio eremu izendatzeko

Elorrioko Udalak beharrezko izapideak hasi ditu udalerria etxebizitzaren merkatuan tentsio eremu izendatzeko; udalaren esanetan, 2018tik 2023ra alokairuak % 21 igo ziren; Jaurilaritzaren txosten baten arabera, 615,7 euro ordaintzen dira hilean alokairuagaitik

**A. M. ELORRIO**

Eusko Jaurilaritzaren txosten batek Elorrio etxebizitzaren merkatuko tentsio eremu modura identifikatu du, hau da, bertan etxebizitza eskuratzea "gatxa" dela ondorioztatu du. Hori dela eta, Elorrioko Udalak beharrezko izapideak hasi ditu tentsio eremu izendatzeko. Bost urteko epean herrian alokairuaren prezioa % 19,6 garestitza da udalerrri bat tentsio handiko eremu izendatzeko baldintzetariko bat, eta Jaurilaritzaren txosten horren arabera % 21 garestitu da Elorrioren. 2018an, elorriarrek 508,7 euro ordaintzen zuten batez beste alokairua; 2023an, oster, 615,7 euro. Elorriarrek diru sarreraren % 22,5 bideratzen dute alokairua ordaintzera. "Herriarrek ahalegin ekonomiko handia egiten dute alokairua ordaintzeko, eta horrek presio ekonomiko handia eragiten du", azaldu du Elorrioko Udalak ohar batean. Datozen hiletarako plana ere azaldu du. Lehenengo



Elorrioko herriguneko irudi bat.

urrats modura, etxebizitzaren merkatua herrian zelan dagoen aztertuko dute, eta gero memoria bat idatziko du izendapena eskatzeko. Gero, "kontsulta publikoko prozesu" bat zabalduko dute herriarrek ekarpenak egiteko, eta,

azkenik, Jaurilaritzari eskaera formal helaraziko diote. Eskara onartuz gero, izendapena hiru urtean egongo da indarrean, eta horri eskerrak udalak eskumen handiagoa izango du alokairuak arautzeko, adibidez.



Elorrioko txabola bat.

## Udalak txabolak legeztatzeko ordenantza onartu du

Ordenantza berria onartuta, herriarrek lizentziarik bako eraikinen egoera legeztatu beharko dute

**A. M. ELORRIO**

Lurzoru urbanizaezinen, nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako eta ez profesionaletarako txabolen, estalpeen eta kutxazarren eraikuntza arautzeko ordenantza berria indarrean dago irailaren 25etik hona. Udalaren esanetan, txabolak baratzei eta ustiategi txikiei laguntzeko dira, eta, beraz, "estetika tradizionalaren bitartez" txertatu behar dira paisaian. Udalak hiru eraikin mota bereizi ditu: txabola (gehienez 15 metro koadro, 2.000 metro koadroko sailean), estalpea (30 me-

tro koadro, 2.500 metro koadroan) eta kutxa txikia. Horrez gainera, debekuen berri ere eman du; adibidez, bizitegi erabilera mota oro eta zerbitzu hauek instalatzea: sukaldea, bainugela, gasa eta elektrizitatea. Gainera, lurzati bakoitzean eraikuntza bakarra egiteko baimena baino ez dute emango.

Bestalde, udalak adierazi du lizentziarik bako eraikinak "kalandestinat" hartuko dituela, eta horiek eraisteko aukera izango duela. Ordenantza aho batez onartu zuten uztaileko osoko bilkuran.

## Ondoetorria Zornotzan Erasmus+ programako ikasleei

Italiako eta Alemaniako hamalau ikasle etorri dira Zornotzara, IES Urritxeko ikasleekin trukean



Hamalau ikasle eta lau irakasle etorri dira Zornotzara.

**A. M. ZORNOTZA**

Erasmus+ programaren barruan, hamalau ikasle eta lau irakasle Zornotzara etorri dira aste honetan; Urritxe BHIko ikasleekin batera parte hartzen dabilta programan. Orain zortzi ikasle italiar, sei aleman, eta herrialde bakoitzeko bi irakasle etorri dira. Zornotzako Udalak harrera ekitaldia egin zien astelehenean. "Topaketa hau ez da bidaia hutsa; hazteko, esperientziak trukatzeko eta gauza berriak ikasteko aukera bat da. Gainera, garrantzitsua da mundua beste begi batzuekin ikustea, gure desberdintasunak baloratu eta kulturen arteko zubia eraikitzea", nabarmendu du Ainhoa Salterain Zornotzako alkatea. Asteazkenean, bisitariak kultur eta jardueren hezitzailetan parte hartu dute Urritxeko ikasleekin batera.

## Berriztu bigarren eskuko azoka egingo dute urriaren 25ean

Bigarren eskuko arropa eta gailuei bizitza berri bat emateko helburuagaz antolatu dute Berriztu azoka

**A. M. BERRIZ**

Berrizko Berriztu bigarren eskuko azokaren beste edizio bat aurkeztu dute. Urriaren 25ean izango da eta erabilpenik ez duten arropa eta gailuei "bigarren bizitza bat" emateko asmoagaz antolatu dute, beste edizio batez. "Gure kontsumoa gutxitzea, bererabilitzea eta birziklatzea bultzatu guran sorturiko ekimena dugu Berriztu, besteak beste", azaldu dute antolatzaileek. Aurturaren 25ean, musika eta kaleko artea uztartuta, ekimenak egingo dituzte azoka girotzeko. Amaia

Basterrikak horma irudia margotuko du, eta 13:00etan Angel Etxebestek kontzertua emango du. Berriztu azoka probalekuan egingo dute, 10:00etatik 14:30era.

Parte hartu gura dutenek 656 764 696 edo 635 755 737 telefonotara deitu edo idatzi beharko dute izena emateko. "Helburua, esan dugun moduan, erabiltzen ez ditugun edo botatzeko geneuzkan gauzei bigarren aukera bat eskaintzea izango da aurturaren 25ean, eta parte hartzera animatzen ditugu berriztarak", gogoratu dute.

# GREMIOEN GIDA

 Zurgintza



Eraberritzeak  
Interiorismoa  
Aroztegia

NEURRIRA EGINKO PROIEKTUAK



[www.leike.eus](http://www.leike.eus)  
Antso Estegiz, 3 Durango  
Tlf: 94 681 72 29

 Zurgintza



EGUR ERAIKUNTZAK  
TEILATU ETA BARRUKO LANAK



Asier Abendibar  
635 74 84 65  
[www.carpinteriaaterpe.com](http://www.carpinteriaaterpe.com)

 Dekorazioa



Armairu eta era askotariko  
altzairuen lakadura eta  
guztietako zaharberritzeak  
egiten ditugu

Eitua Industrialea, 45 Garala A - BERRIZ  
Tel/Faxa: 946 824 143 - Mug.: 658 758 421  
[info@jaioabarnizatuak.com](mailto:info@jaioabarnizatuak.com)  
[www.jaioabarnizatuak.com](http://www.jaioabarnizatuak.com)

 Elektrizitatea



ELECTRICIDAD JON

622 684 284  
[electricidadjon@outlook.es](mailto:electricidadjon@outlook.es)

 Iturgintza



M.Z.O. ITURGINTZA - GASA  
BEROGAILUA - ERAIKUNTZA, S.L.



Mallabiena industrigunea, 6  
48215 IURRETA - Tel.: 946 818 862  
[mallabiena@mallabiena.com](mailto:mallabiena@mallabiena.com)

 Iturgintza



UNAI  
GARAY  
ITURGINTZA  
BEROGINTZA  
GASA

INSTALATZAILE BAIMENDUA

659 673 790  
[unaigaray@yahoo.es](mailto:unaigaray@yahoo.es)



# Gerediaga leku bila dabil egitasmo berritu baterako

Maialen Zuazubiskar ABADIÑO

Joan zen asteko osoko bilkurak zeresana eman du Abadiñon, baita Durangaldean ere. Bilkurako gai ordenean, Gerediaga Elkarteak egindako eskari bat zegoen, eta, bertan aipatuzutenez, 1965ean eskualdean eratu zen elkarteak Abadiñon lokal batera etortzeko eskaria egin zuen. Bilkuran aldeko eta kontrako botoak eta iritziak egon ziren arren, Gerediaga Elkarteari lokal batzuk uztea onartu zuten.

Egindako eskaria nondik eta zergaitik datorren zehazteko, elkarteak oharra kaleratu du asteon. "Sortu zenetik, Gerediaga Elkartearen lana eskualdeko nortasuna berreskuratu eta indartzeko, hura osatu duten iraganeko eta egungo egitura fisiko, kultural, ekonomiko eta politikoak ikertu, zaindu eta zabaltzea izan da", azaldu dute elkarteak kideek. Norabide horretan, Gerediagak dokumentategia ipini zuen martxan, eskualdeko gaiak batu, sailkatu, gorde eta jendar-tearen eskura modu antolatuan ipintzeko. "Azken urteetan dokumentategia berrizten aritu gara. Biltegia Astolan dugu eta Durangoko Larrasoloetan dugun



Gerediaga Elkartearen Durangoko lokala.

egoitzan dago dokumentategia. Hala ere, leku falta dugu oraindino", gehitu dute.

Hori ikusita, orain urtebete baino lehenago Mankomunitateagaz eta eskualdeko udalekin hartu-eman lantzen hasi zirela gaineratu dute. "Abadiñoko Udalak herrian aukeraren bat aztertu zezakeela esan zigun, eta, ondorioz, 2025eko udaberrian eskaria egin genuen. Orain

osoko bilkuratik pasatuta, proiektuaren txosten teknikoa landuko dugu", gaineratu dute. Lokalaren egokitzapenen kostua euren gain hartuko dutela azaldu dute.

Bestalde, etorkizuneko gune berrian erabilera anitzeko gela, artxiboa, lan-eremua, laborategia eta bestelako zerbitzuak egotea aurreikusten dutela jakinarazi dute.

## Zaldibarko Udalak erabilera libreko gela zabaldu du Olazarren

Lokala Gaztelekuan dago eta maiatzera arte egongo da zabalik. Interesdunek giltza eskatu dezakete udaletxean

Ekaitz Herrera ZALDIBAR

Zaldibarko Udalak erabilera libreko gela atondu du Olazarren, Oitk 5 urtera arteko umeentzat. Lokala Gaztelekuan dago, *gela berdea* legez ezagutzen den lekuan. 30 metro karratu zabal da eta 15 laguntzako gehieneko edukiera du. Udalak altzariak, alfonbrak, mahaia eta aulkiak ipini ditu bertan. Erabilera libreko gela urritik 2026ko maiatzera arte egongo da zabalik, astelehenetik barikura, 16:00etatik 19:30era. Azpiegitura erabili ahal izateko, gurasoek udaletxera joan eta inprimaki bat bete beharko dute. Behin hori eginda jasoko dute lokalaren giltza-txartela.

Eneritz Azpitarte alkateak gogorarazi duenez, erabilera libreko gela aurrekontu parte hartzaileetako proiektu bat da. "Gobernu talde honek bere egin du Zaldibarko herritarren pro-



Erabilera libreko gela. UDALA

posamena. Herriko umeek eta familiek eremu gorde eta estalia izango dute aurrerantzean, eguraldiak laguntzen ez duenerako", azaldu du. Gelaren erabilera gertutik jarraituko dute, "etorkizunean hobekuntzak egin ahal izateko".

## Mallabian denda berriaren gestioa lizitazioa atera dute

Mallabiko Udala Arteiz kaleko 8 zenbakiko lokal bat eraberritzen dabil; bertan denda bat ipintzea da asmoa

M.Z. MALLABIA

Mallabiko Udalak Arteiz kaleko 8 zenbakiko lokala alokatzeko lizitazio prozesua zabaldu du. Udalak jakinarazi duenez, tokiko elikagaiak eta etxeko produktu orokorrak saltzeko denda bat zabaltzea da bere asmoa. Baita ekintzailatza erraztea eta herriko hirigunean merkataritza-jarduera bultzatzea ere, udalaren gune bat eskuragarri ipinita.

Gaur egun lokala egokitze lanetan dago eta lan horiek abendurako amaitzea aurreikusten dute. Horrela, aurreikusitako jarduerak amaiturikoan izango da erabilgarri eta hasiko da martxan.

Udalak jakinarazi duenez, hauetxek dira 70 metro karratu inguru dituen lokalaren kontratuaren baldintza nagusiak, besteak beste: elikagaien eta etxeko produktuen salmentarako da;



Arteiz kaleko irudi bat.

bost urteko kontratua da, beste 5 urte luzatzeko aukeragaz; eta lokala zaintzea.

Interesdunek udaleko webgunearen bitartez aurkeztu beharko dute beharrezko dokumentazioa. Epea urriaren 24an amaituko da, barikua, 14:00etan.

## Diru laguntzak eskatzeko epea zabalik Abadiñon

M.Z. ABADIÑO

Abadiñoko Udalak hainbat diru laguntza eta hobari eskatzeko epea zabaldu duela azaldu du prentsa oharrean. Udalak jakinarazi duenez, laguntzak emango dituzte euskara ikasteagaitik, eta baita gidabaimena euskaraz ateratzeagaitik ere. Horrez gainera, Abadiñon etxebizitza bat ohiko bizileku modura alokatzeagaitik ere laguntzak emango dituzte. Eta zabor eta estolderia tasetan ere hobariak daudela jakinarazi dute.

Tramite hauek guztiak Abadiñoko Udalaren web orriaren bitartez edo udal bulegoetan aurrez aurre egin ahal izango dira.

## Hainbat hobekuntza egin dute Izurtzako nagusien lokalean

Joseba Derteano IZURTZA

Izurtzako Udalak hainbat obra egin du jubilatuen lokala hobetzeko. Batetik, zorua aldatu dute eta pitzadurak zituzten zutabeak konpondu dituzte, udal arduradunen esanetan. Horrez gainera, lokaleko barra txikitu egin dute lekua irabazteko. Barra berriak lokaleko beharrianak asetzen ditu, baina orain lokalean metro karratu gehiago dago askotariko ekimenak aurrera eramateko. Jubilatuen lokalean gimnasia klaseak ematen dira, bestea beste. Obrako zatirik handiena amaituta dago, baina lokala pintatzea falta da oraindino. Lanek 5.000 euro inguruko aurrekontua izan dute.

## Tromoitioko barruti gotortua ezagutzeko bisita zapatuan

E.H. GARAI

Ondarearen Europako Jardunaldien harira, Garaiko Udalak, Bizkaiko Foru Aldundiak eta Gerediagak bisita gidatu bat antolatu dute Tromoitioko *castro* edo barruti gotortua ezagutzeko. Orain dela zenbait mendeko biztanleek gailurren inguruetan egiten zituzten eraikinen adibide bat da Tromoitiokoa, ingurua zaintzeko gotorleku legez erabiltzen zutena. Horrez gainera, euskal arkitektura tradizionalaren adibide da Garaikoa.

Bisita gidatua urriaren 11n izango da, 11:00etan, herriko plazatik hasita. Bisita erreserbatu gura duenak 94 681 80 66 telefonora deitu dezake.

# Oraindik ez zara ANBOToko whatsapp taldeko kide?

Durangaldeko azken  
albisteak jaso gura  
badituzu batu Anbotoko  
whatsapp kanalera



**Eskaneatu  
QR kodea**

\* Izan zaitez berriemaile ere.  
Bidali zure argazki eta bideoak



**anboto**  
**kide**

Anbotokideen  
txokoa

## URRIKO ZOZKETAK



**BASA take away** jatetxeko bi gazta tarta razio. Zaporeak aukeran: gazta tarta labean, pistatxo, kitkat, mango, oreo, lotus edo pantera rosa.



**Aukan izozkiak.** 6 izozki edo etxera eramateko 1/2 litroko 2 tarrina. Durango.



**Xiberu tabernan** bi gosari bikoitz. Zornotza.

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

\*Zozketa hauetan parte hartzeko eman izena gure webgunean.

Egin zaitez Anbotokide  
eta parte hartu gure  
zozketetan!



# Akordioa lortu dute Aalberts Tey enpresan

Atxondoko enpresako zuzendaritzagaz hitzarmena adostu eta gero, langileek bertan behera utzi dute astebururako deituta zegoen greba deialdia. Azken asteetan hainbat elkarretaratze eta greba egun egin dute enpresa-hitzarmen berriaren harira

**Joseba Derteano** ATXONDO

Atxondoko Aalberts Tey enpresako langileek bertan behera utzi dute astebururako deituta zegoen greba deialdia. Izan ere, enpresa-hitzarmen berrirako akordioa lortu dute zuzendaritzagaz, CCOO sindikatuak jakinarazi duenez.

Sindikatuaren esanetan, sei hilabete pasatu dituzte enpresa-hitzarmena adostu ezinda. "Enpresako zuzendaritza negoziazio epea luzatzen aritu da", esan dute. Hain zuzen ere, "hitzarmeneko puntu batean" ez zetozen bat. Baina langileen ordezkariak "beste proposamen bat" egin dute blokeoa eragiten



Aalberts Tey enpresa inguruan egon den pankarta. Atzean, enpresako langileak.

zuten puntu horretan, eta enpresak "ontzat" eman du. Azken asteetan langileek elkarretara-

tzeak egin dituzte enpresaren aurrean, eta joan zen asteburuan hiru greba egun egin zituzten.

## Familiantzako irakurketa klubean parte hartzeko aukera Atxondon

Irakurzaletasuna bultzatzea da helburua. Amaia Egidazuk eta Mireia Delgadok gidatuko dituzte saioak

**J.D. ATXONDO**

Urtero lege, Atxondoko Udal Liburutegiak familiantzako irakurketa klubak antolatu ditu eta izen ematea martxan da. Besteak beste, liburutegira joanda eman daiteke izena.

Saioak liburutegian izango dira eta umeak adin tarteka banatuko dituzte: hiru urtera artekoak, 4tik 7ra artekoak, eta 8tik 12ra artekoak.

Txikien taldea urritik apirilera bitartean batuko da, hilean eguen baten, eta Amaia Egidazuk gidatuko ditu saioak. Egidazuk ipuin kontaketa saio bat ere egingo du eskolan bertan, proiektua umeen eta gurasoen artean ezagutarazteko.

Gainerako talde biak azarotik apirilera bitartean batuko dira, hilean eguazten baten, eta Mireia Delgadok gidatuko ditu saioak.



Atxondoko liburutegia.

### Taldeak eskolan

Nobedade lege eta Atxondo Herri Eskolagaz elkarlanean, aurten irakurketa klubak sortu dituzte eskolan. Hiru talde daude. Hilean liburu bat landuko dute Mireia Delgadogaz.



Yamaguchiren eskultura Angurretan.

## Bisita gidatua Mañariko harrobiak gaitzat hartuta

**J.D. MAÑARIA**

Ondarearen Europako Jardunaldien barruan, *Mañaria*, *Harri Lorategia* izeneko bisita gidatua antolatu dute domeka honetarako. Mañariko harrobiak gaitzat hartuta, marmol ustiapenaren jatorriaren azalpenagaz hasiko da bisita. Gero, Tadanori Yamaguchi artista japoniarrek egindako instalazioa eta bertan dauden beste eskulturak ezagutuko dituzte bisitariek.

# Iurretako Bidebarrieta kalea berrurbanizatu dute

Iurretako Udala ibilgailuen sartu-irtenak arautuko dituen ordenantza lantzen dabil. Bidebarrieta kalean, baimendutako ibilgailuak baino ezingo dira sartu, eta orduko 20 kilometrora mugatuko dute abiadura. Udalak ia 900.000 euro erabili ditu lanetarako

**Aitziber Basauri** IURRETA

Iurretako Bidebarrieta kaleak itxura berriztua du, bederatzi hilabete iraun duten berrurbanizazio lanak amaitu eta gero. Azken ikutuak eman dituzte asteon, eta kalea lorategiz eta zuhaitzez hornituta amaitu dituzte lanak. Udalak ia 900.000 euroko inbertsioa egin du lanak egiteko. "Herritarrak lasai eta seguru ibiltzeko eremua lortzea izan dugu helburu, urte askoan obrarik egin ez den kale hori atseginago bihurtzea", azaldu du Oskar Koka alkateak.

Oinezkoentzako kalea bihurtu da Bidebarrieta kalea. Bada, ibilgailuen sartu-irtenak arautze-



Bidebarrieta kalea oinezkoentzat egokitu dute.

ko ordenantza lantzen dabil udala. Alkateak aurreikusi du 2026ko urte hasieran prest egotea ordenantza. Aurreratu duenez, udaltzaingoak baimendutako ibilgailuak baino ezingo dira sartu Bidebarrietara. Eta abiadura mugatuta egongo da, orduko 20 kilometrora. "Garajeetara sartzeko, zamalanak egiteko eta kaleko zerbitzuak erabiltzeko baino ezingo dira sartu ibilgailuak, udaltzaingoak baimenduta, beti ere", gaineratu du alkateak. Bideokamera bat ipiniko dute hori guzti hori kudeatzeko. Bestalde, udalak argidun informazio panel bat ipini du Bidebarrieta kalean.

## Galtzada bihurtu

Ibilgailuek orduko 20 kilometrora mugatuta errespetatu dezaten, "galtzada bihurtu" egokitu dute Bidebarrieta kalean, alkateak azaldu duenez. "Izan ere, oinezkoek dute lehentasuna kalean", argitu du. Gainera, espaloiairen eta galtzadaren arteko aldea kendu dute. N-634 errepideak baldintzaturiko lanak izan direla gaineratu du. Adibidez, kalean ipiniko dituzten arbolak auke-ratzerakoan, zehaztu duenez.

## Ludoteka zabaldu dute Otxandion, ume eta gaztetxoentzat

**A.B. OTXANDIO**

Urriaren 20an ipiniko dute mar-txan ludoteka Otxandion. Hala ere, Andresalandako guneak asteon ere ateak zabalik izango ditu, probatzeko, informazioa jasotzeko eta izena emateko. Berbaro euskara elkarteak kudeatuko du, HH3tik LH5era arteko neska-mutilei zuzenduta. Astelehenetik eguenera egongo da zabalik, 16:30etik 18:30era.

Adinaren arabera eskainiko dute zerbitzua, Berbaroko Ireder Angulok esan duenez. Astelehenetan HHko (3, 4 eta 5 urtekoak) umeentzat izango da, martitzetan LHko lehenengo ziklokoentzat, eta eguaztenetan LHko 3. eta 5. mailara artekoentzat. Eguenetan denentzat egongo da zabalik. "Herriko ume eta gaztetxoentzat espazio bat sortzea da helburua, euren nahi eta interesetatik abiatuta. Irakurtzeko eta eskulanak egiteko aukera eskainiko zaie, baina dituzten nahien arabera joango gara eskaintza osatzen", gaineratu du Angulok.

# MANGAMORE

URRIAK 11-12 2025

[WWW.MANGAMORE.EUS](http://WWW.MANGAMORE.EUS)

## Zinema soziala ikusteko hitzorduak Abadiñon eta Elorrion

Errotak eta Arriolak Zinema Ikusezina jaialdiko hainbat film labur hartuko dute asteburu honetan

**Ekaitz Herrera** DURANGALDEA

Asteburu honetan, Bilboko Zinema Ikusezina jaialdiko hainbat film labur egongo da ikusgai Abadiñon eta Elorrion. Giza eskubideei, justizia sozialari zein ingurumenari buruzko

ikus-entzunezkoak dira denak, fikziozkoak zein dokumentalak, eta nazioarteko hainbat errealitate gerturatuko dute eskualdera.

Abadiñoko Errota kultur etxean gaur, urriak 10, eta hi-

laren 17an proiektatuko dituzte filmak, 19:00etan. Elorrioko Arriolan urriaren 11n, 12an eta 13an emango dituzte.

Aurtengo edizioan esangura nabarmena hartuko dute Palestinako egoera erakusten duten lanek. Hango errealitatea gerturatuko dute *High Roads*, *Blood Like Water* zein *Free Words: A poet from Gaza* filmek. Era berean, Argentinako, Ginea Bissauko, Guatemalako, El Salvadorko zein Euskal Herriko lanak ere emango dituzte.



Jaialdiko kartela. ZINEMA IKUSEZINA



### POLITIKAN

**CARLOS GARCIA**  
PP

## Tabirako estadio bat igogerarako

Proposatu nuen eta oso ondo hartu zuten Durangoko azken udal osoko bilkuran, Tabirako kirol instalazioetan egingo diren lanek —aldagelak eta igerilekuak berritzea eta futbol zelai berri bat eraikitzea barne— aukera emango dutelako etorkizunean Durangoko Kulturalak bere partidak jokatzeko dituen estadioa egokitzeko, Bigarren Mailara igotzeko aukera izateko.

Ez duguna nahi da Amorebietarekin eta Urritxerekin gertatutakoa, Bigarren Mailako partidak udalerritik kanpo jokatu behar izan baitzituzten, Lezaman, Arenas de Getxorekin igo ondoren berriro gertatu zena.

## EZ DUGUNA NAHI DA AMOREBIETAREKIN ETA URRITXEREKIN GERTATUTAKOA

Ez dut proposatu egokitzapenak orain egitea, baina orain diseinatutako proiektuak kontuan hartzea nahi nuke, eta baita etorkizunean Kulturalaren igogerarako edo Lehen Mailako talde baten aurkako Kopako partida baterako egokitzea eragotziko luketen erabakiak saihestea ere.

## DURANGALDEA ASTEON

### Gaba Baltza prestatzeko bideoa Mallabian

**MALLABIA** Hile amaieran ospatuko da Gaba Baltza, baina Mallabian motorrak berotzen hasita daude eguna behar den moduan ospatzeko. Gaur, urriak 10, bideo bat grabatuko dute Arimen Gauda berotzen hasteko. Herritarrak Zengotitako ermitan batuko dira, 17:00etan. Bertaratu gura dutenek mozorroak eta bestelakoak eraman beharko dituzte: zapiak, gonak, apaingarriak, kandelak, kalabazak, makilak, txapelak zein otzarak.



AKUSTIKAIA

### Akustikaia girotuko du Abadiñoko azoka

**ABADIÑO** Urriaren 12a hileko bigarren domeka izatera, azoka egingo dute Txanporta plazan, 10:30etik 14:00etara. Hileroko ortuari, esneki, okela, edari eta artisautza produktuez gainera, musika animazioaz ere gozatu ahal izango da bertan. Lekeitioko Akustikaia taldeak euskal kanta ezagunen errepasoa eginda girotuko du feria. Emanaldia azokaren antolatzaileek eta Isiotuk antolatu dute elkarlanean.

## GUTUNAK

### Euskal Udalekuei babesa

#### BERBARO ELKARTEA

Iraila baliatzen dugu udalekue-tako haurrak batu, otorduen inguruan udalekue-tako bizipenak gogoratu, eta bertan sortutako harremanak ikasturtean zehar iraunarazteko. Zeregin horietan gabiltzala izan dugu Euskal Udalekuen inguruan sortu den zalapartaren berri.

Kezka handiz ikusi ditugu sare sozialetan eta komunikabideetan zabaldu diren mezu eta erasoak, eta horien aurrean gure babesa eta elkartasuna adierazi nahi dizkiegu Euskal Udalekue-tako hezitzaileei. Badakigu heziketa esparruan ikuspegi eta balio ezberdinek talka egin dezaketela, baina hori bideratzeko modua errespetua eta elkarriketa izan behar dira, ezinbestean.

Zure gutuna helarazteko helbideak: Bixente Kapanaga 9, - lurreta • Izen-abizenak • telefonoa • helbidea • Nortasun Agiriaren zenbakia DATUOK BARIK EZ DA GUTUNIK ARGITARATUKO Alderdi, elkarte edo taldeko iritziak kide baten izenean sinatuta eta ANBOTÖren irizpideen arabera zuzenduta publikatuko dira. Bidalitako testuak ezingo du 1.500 karaktere baino gehiago izan (tarreak barne).

## anboto

**Gertuko Koop S.,**  
Gizarte Ekimenekoa

**Bixente Kapanaga, 9**  
**48215 lurreta - Bizkaia**  
**Tel.: 946 816 558**  
**Erredakzioa:** 946 232 523  
**Publizitatea:** 946 217 902

**Lege gordailua:**  
BI-2268/01  
**ISSN:**  
1578-7028  
**Tirada:**  
12.000 ale

**Zuzendaria:** Jone Guenetxea Arrindia.  
**Erredakzio burua:** Ekaitz Herrera Azkarraga.  
**Administrazioa:** Itziar Belar Zubizarreta eta Miren Abasolo Txabarri.  
**Publizitatea:** Goretti Alonso Armendia.  
**Erredakzioa:** Aitziber Basauri Gandiaga, Joseba Derteano Bilbao, Maialen Zuazubiskar Gallastegi, Aritz Maldonado Zabala.  
**Maketazioa:** Eider Alberdi Bengoa.  
**Zuzentzailea:** Mikel Azkarraga Etxegibel.



LAGUNTZAILEAK

**Bizkaia**  
foru aldundia  
diputación foral

Aldizkari honek Bizkaiko Foru Aldundiaren laguntza jaso du

**EUSKO JAURLARITZA** **GOBIERNO VASCO**

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA Y POLITICA LINGÜISTICA

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak diruz lagundua

# "Testuinguru historiko latzetan arteak beti izan du funtzio garrantzitsua"

JONE LASPIUR ETA ENEKO SAGARDOY AKTOREAK

**ZINEMA** 'Karmele' pelikularen lantaldea promozio lan betean dago; izan ere, asteburu honetan helduko da zinema aretoetara; pozik daude Zinemaldian izandako harreragaz



Jone Laspiur eta Eneko Sagardoy, filmazioan. DAVID HERRANZ

**Aritz Maldonado** DURANGO

ANBOTO Eneko Sagardoy eta Jone Laspiur aktoreekin batu da Bilboko Multicines 7 zinema-aretoan. Biak gogotsu daude ikusleek "pelikula euren egin" dezaten. Uste dute pelikulak ikusmina piztu duela; alde batetik, herritarrek euskal ekoizpenen zain egoten direlako, eta, bestetik, Eresoinka taldeari aitortza bat delako ere.

**Oso pelikula anbiziotsua da orokorrean. Zelako erronka izan da benetakoa pertsonak hezurmamitza?** Jone Laspiur: Presioa beti dago hor. Kontrakoa esango banu gezurra esango nuke; gainera, kasu honetan pertsona errealeak izan dira, bizirik dauden senideak

dituztenak, eta eleberri bat ere badago. Beraz, jende batek irudikatu egin du istorioa. Hitz egin dudana jende askok eleberria ere bere sentitzen du, baina uste dut horixe dela zinemaren gauza ederretako bat, guk geuk sortzea fikzio bat, dagoen istorio bat guk geuk gorpuztea, geure ekarpena egitea. Gainera, Asierrek, zuzendariak, askatasun handia eman digu horretarako, eta ondoren

**"IKUS-ENTZUNEZKO KULTURAN EUSKALKIAK SARTZEA GERTA DAITEKEEN ONENETAKOA DA"**

ekipo teknikoaren lanarekin ere beste mundu bat sortzen duzu, denen artean eraikitzen doana. Beraz, erantzukizunez bai, baina emozio eta gogo handiz, ere bai. **Eneko Sagardoy:** Oraindino ere loteria sentsazio moduko bat dugu horrelako proiektu bat heltzen zaigunean, finantziario potoloa eta anbizio artistiko handia duena, ez dakizulako noiz izango duzun tamaina horretako pelikula bat berriro egiteko aukera. Ez guk bakarrik, orokorra dela esango nuke. Orduan, ardura bat ere badago hor, ezohikotasun sentsazio argi bat dagoelako, baina, azkenean, konstatzen duen horrek hartzen du indarra, ez besteak; niri behintzat

ahaztu egiten zait. Ikusten duzunagaitik, badakizu apustua dagoena, anbizioa dagoena, diru bat, baina berdina dio, ze lehengaia beti dira gidoia, emozioak eta konplizitateak. Plazeretik ere bizi dugu, ikusten duzulako zelako jantziak ditugun, zelako aurrelanketa, eta baita instrumentuak jotzen eta dantzan ikasi ahal izan dugulako. Eta ez nabil euskal zinemaz bakarrik, oso gatz da aktore legez horrelako proiektu batean parte hartzea.

**Musika bereziki landu duzue.**

**E. S.:** Biok oso barruan dugu sentsibilitate artistiko bat. Niri ez zait arrotza egin, eta esango nuke biok dugula musikaren eta artearen bitartez adierazteko sentsibilitate hori, eta hori bat dator gure pertsonaiekin. Alde horretatik, oso ondo ulertu ahal izan ditugu pertsonaiak, baita eurek egindako borroka ere. Batetik militantzia politikoaren kontua dago, eta bestetik adierazpen artistikoa.

**J. L.:** Niretzat opari itzela izan da, plazer bat musikarekin berriro konektatzea. Berriz ere piano eskolak hartu ditut Larraitz Burgaletarekin, umetako piano irakaslearekin. Astean bi saio egitea berarekin, Argia-ko Jexuxekin ere berriz dantzan egin ahal izatea, eta Kup koru taldearekin abestu ahal izatea itzela da. Denak opariak izan dira. Agian musikaren oinarritzko ezagutzarik ez duen bantentzat zerbait izorregarria izan liteke, baina nik opari gisa hartu dut.

**"OSO GATX DA HORRELAKO PROIEKTUETAN PARTE HARTZEA"**

**Euskalkiak erabiltzeko joera nabarmena da.**

**J. L.:** Ikus-entzunezko kulturaren euskalkiak sartzea gerta zitekeen gauzarik onenetako bat dela uste dut. 1995ean jaio nintzen eta garai horretan ez zegoen ekoizpen askorik; eta zegoena batuan zen nagusiki. Batuak gauza on asko eman digu, noski, baina pozez betetzen nau euskalkian egin ahal izatea. Pertsonalki ere polita izan da. Gurasoak eibartarrak ditut, familia ere inguru hartakoa da, eta emozionalki asko konektatzen nauen hizkera da. Beraz, pertsonaiekin eta aldi berean nire arbasoekin konektatzeak, eta nire familiako emakumeengan pentsatzeak bidea erraztu dit, eta polita izan da gainera.

**E. S.:** Klean euskalkiak erabiltzen baditugu eta komunikatzeko bidea badira, ba zinemaren ere bai. Ulergarritasunaren muga hor dago baina zoragarria da, euskalkiak informazio asko ematen digulako: pertsonaien klasea, jatorria, kokapen geografikoa. Beste hizkuntzetan ere erabiltzen da, eta, beraz, aprobetxatu dezagun.

**Ikusten duzue paralelismoak pelikularen eta gaur egungo testuinguruaren artean? Eta kulturak egin dezakeen ekarpenagaz?**

**J. L.:** Testuinguru historiko latzetan arteak beti izan du funtzio garrantzitsua bat, beharbada bigarren plano batean geratzen dena, baina badu eragiteko ahalmen hori, eta horregatik egiten dugu hein batean. Orain ikusten ari garen bezala, agente kultural asko ari dira posizionatzen, hitz egiten, beraien bizitza eta lanak arriskuan jartzen. Karmelek eta Txominek hala egin zuten. Beraiek erabaki zuten dantzaren, kantuen eta musikaren bidez mezu bat zabaltzea eta herri baten identitatea erakustea. Eta guk ere istorioa hartu eta zinemaren bidez kontatu dugu. Kulturari espazio bat ematea beti dago ongi, eta, beraz, uste dut gai hau oso egoki datorkigula.

**E. S.:** Karmelek eta Txominek orduan egin zutena geuk egingo bagenu, gaur egun beste leku batean egongo ginatke, gu eta mundua. Artista lanetan pelikula hau egin dugu, adierazpen batzuk egin ditugu eta txapa bat ipini dugu soinean. Txominek eta Karmelek gorputza ipini zuten, bizia modu zuzenean arriskatu zuten, eta gure lana horren kanal bat izatea ikaragarria da.

# Zornotza japoniar kulturazaleen topagune berriro ere

**MANGAMORE** Urriaren 11n eta 12an Mangamore jaialdia ospatuko dute Zornotzan; Anna Morales (SizeMatters), Alexby11 youtuberra eta 'Dragoi Bola Super' telesailako bikoizketa taldeak parte hartuko dute hemeretzigarren edizio honetan

**Aritz Maldonado** ZORNOTZA

Zornotza japoniar kulturazaleen topagune bihurtuko da beste behin ere. Izan ere, Mangamore jaialdiaren beste edizio bat ospatuko dute zapatuan eta domekan; hemeretzigarrena, hain zuzen ere. Aurten, Anna Morales (SizeMatters) zientzia dibulgatzaileak parte hartuko du. *Ciencia con Pokemon* berbaldua emango du; bertan, Pikachu eta Bulbasur pokemonen atzean dauden azalpen zientifikoak emango ditu. Alexby11 youtuberra ere Mangamoren izango da; *influencer*-ak zortzi milioi jarraitzaile ditu. *Dragoi Bola Super* telesaila euskarara bikoizten duen lantaldeak ere bisitatuko du Zornotza asteburuan. Horrez gainera, antolatzailerak artista, denda eta kultur eragile zornotzarren parte hartzea bultzatu dute egitarauan. "Mangamore Japoniako manga edo kulturari buruzko jaialdia baino gehiago da; sormena, tokiko parte hartzea eta belaunaldien arteko topaketa bihurtu den hitzordua da", azal-



Koldo Bilbao zinegotzia, Ainhoa Salterain alkatea eta Mangamoreko panpina.

du du Ainhoa Salterain Zornotzako alkateak. Egitarau osoa [www.mangamore.eus](http://www.mangamore.eus) atarian dago.

Bestalde, Japoniako tradizioek ere izango dute euren erakus-

leioa Mangamoren. Horrela, zapatu arratsaldean Kazeoto taldeak kontzertua emango du Amorebieta IV pilotalekuan; haien instrumentu tradizionalen egindako ikuskizuna da.



Txaber Altube, Lekeitioko saioan.

## BBTko finalaurrekoak erabakita geratuko dira asteburuan

**BERTSOLARITZA** Aritz Katarain mallabitarrak eta Bittor Altube abadiñarrak sailkatzea lortu gura dute Galdakaon

**A. M. ABADIÑO**

Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalaurrekoetan zeintzuk bertsolari arituko diren ezagutuko da asteburuan. Lehenengo faseko azken saio biak Galdakaon (urriaren 11n, zapatua) eta Getxon (urriaren 12an, domeka) izango dira. Lehenengoan, besteak beste, Aritz Katarain mallabitarrak eta Bittor Altube abadiñarrak egingo dute bertsotan. Bien helburua finalaurrekoetara sailkatzea izango da.

Finalaurrekoen fasean Durangaldeko beste bertsolari bat batuko da lehiara, Gorka Pagona-barraga durangarra. Finalau-

rrekoak bi bueltatara izango dira; lehenengo itzulian hiru saio jotuko dira, horietariko bat Abadiñon. Finalerako sailkapena buelta bietako puntuazioaren baturak erabakiko du.

**Altube eta Bizkarra aurrera**

Hain zuzen ere, lehenengo fasean abadiñar bik lortu dute finalaurrekoetara zuzenean sailkatzea, euren saioak irabazita. Aitor Bizkarra Urdulizen irabazi zuen, eta Txaber Altubek Lekeition. Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finala abenduaren 20an izango da, Bilbon.



GAI LIBREAN

**IUNE RUIZ TAGLE** ARTE HISTORIALARIA

12

Idea gutxiarekin bueltatu naiz oporretatik. Nekatuta bueltatuko nintzen. Edo agian lasaiago. Bai, oporretatik nekatuta bueltatu naizela esan dut, eta zer? Edo akaso zuretzat udako oporraldia luzeegia da?

Inspirazio faltan nagoela onartzen dut. Horregatik, urtariletik irailera arteko Durangaldeko gaztetxe eta gunen autogestionatuen kontrako eraso eta lapurreten zerrendarekin nator gaurkoan. Egunez egun, sinple eta gehiegi pentsatu gabe. Edulkoratu gabe. Gordin-gordin. Hori da dakardana.

- Urtarrilaren 7an Zornotzako Matrailu Gaztetxeak eraso faxista bat eta lapurreta saiakera jasan zituen.
- Urtarrilaren 24an Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan lapurreta izan zen.
- Otsailaren 17an Berrizko Hiltegixe Gaztetxean lapurreta izan zen.

- Apirilaren 3an Durangoko lau gazte epaitu zituzten udalerrri bereko Justizia Jauregian Korreoseko gaztetxea babestu izanagatik.
- Apirilaren 26an Atxondoko Gaztetxeako almatenari su eman zioten.
- Maiatzaren 8an Matienako Txosnetan lapurreta izan zen.
- Ekainaren 8an Abadiñoko Gaztetxean lapurreta izan zen.
- Ekainaren 25ean Durangoko Gaztetxeako asanbladako beste kide bat epaitu zuten.
- Uztailaren 27an Zornotzako Matrailu Gaztetxean berriro lapurreta gertatu zen.
- Abuztuaren 12an Berrizko Hiltegixe Gaztetxean berriro lapurreta gertatu zen.
- Abuztuaren 27an Zaldibarko Gaztetxean lapurreta izan zen.

- Irailaren 2an Abadiñoko Amaraun Arte Fabrikan berriro lapurreta gertatu zen.

Idea gutxiarekin bueltatu naizela esan dizut, eta hala da. Ez pentsa, orduan, tripak atera eta zerrendaren inguruko gogoeta sakonik egingo dudarik orain. Urtariletik irailera bitartean 12 eraso jasan dituzte guztira gure eskualdeko gaztetxe eta gunen autogestionatuek. 12 guztira. Hilean, batez beste, eraso bat. Ezta kasualitatea zenik ere. Zerrenda honek bakarrik hitz egiten du. Hitzik gabe baina ozen. Edulkoratu gabe.

Merkatuaren logiketatik ihes egiten duten kultur-gune eta jardun politikorako txokoetan utzi du arrastoa sistemak berak sortu eta elikatzen duen miseriak. Agian gehiegi pentsatu dudana esaldi bat da hau. Azkenean pedante samarra geratu zait. Kaka!

AGENDA

EMAGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI EGUAZTEN EGUERDIA BAINO LEHENA-GO. Tel.: 946 232 523 / agenda@anboto.org

BARIKUA 10

**ABADIÑO Erakusketa**  
'Naturari so'. Durangaldeko Artisten Elkarteko talde erakusketa.  
*Urkiolako parketxean, abenduaren 20ra arte.*

**DURANGO Erakusketa**  
Durango Uria XXV. Pintura Lehiaketara aurkeztutako lanak.  
*Ezkurdi aretoan, urriaren 13ra arte.*

**DURANGO Erakusketa**  
'Goren Sakona' (Ros Boisier).  
*Arte eta Historia museoan, azaroaren 16ra arte.*

**DURANGO Erakusketa**  
'Andra Mariko elizpea. Durangoko bihotza'. Ondare Jardunaldiak.  
*Arte eta Historia Museoan, azaroaren 16ra arte.*

**ELORRIO Erakusketa**  
Elorrioko Argazki Taldekoen lanak.  
*Iturri kultur etxean, urriaren 24ra arte.*

**ZALDIBAR Erakusketa**  
'Gorde nuen eta ahaztu zitzaidan' (Aitane Goñi Landa) argazki erakusketaren inaugurazioa. Goñi bera eta beste hainbat artista batuko dira ekitaldira.  
*Xerra espazioan (17:00-21:00).*

**ZALDIBAR Artea**  
Arte laborategia.  
*Liburutegian, 17:00etan.*

ZAPATUA 11

**ABADIÑO Musika**  
X. Amaraun Elektronikoa.  
*Amaraun Arte fabrikan, 14:00etan.*

**ELORRIO Ibilbide gidatua**  
'Barrioak: etxea eraikiz, herria eraiki. Ondare arkitektonikoa'. Europako Ondare Jardunaldien barruan. Udalak eta Turismo Bulegoak antolatuta. (Izen ematea: 946820164 / 688776270 / turismoa@elorrio.eus).  
*Industrialeko aparkalekuan (11:00-13:00).*

**GARAI Ibilbide gidatua**  
'Tromoitoko barruti gotortua'. Europako Ondare Jardunaldien

barruan. Udalak eta Gerediagak antolatuta. (Informazioa: 94 681 80 66 / ejardunaldiak@gmail.com).  
*Udaletxean (11:00-12:30).*

**IURRETA Bizikleta irteera**  
Leintz Gazagara irteera. Iurreta Txirrindulari Elkartea.  
*Iurretan, 09:00etan.*

**ZORNOTZA Jaialdia**  
Mangamore Jaialdia.  
*Lau gune egokitu dituzte Zornotzan (11:00-21:00)*

DOMEKA 12

**ABADIÑO Azoka**  
Hileko 2. azoka. Akustikaia taldeak girotuko du azoka.  
*Txanporta plazan (10:30-14:00).*

**DURANGO Sariketa**  
XXV. Durango Uria Pintura Lehiaketako sari banaketa.  
*Ezkurdi aretoan, 13:00etan.*

**ELORRIO Ibilbide gidatua**  
'Kaleitarra: etxea eraikiz, herria eraiki'. Europako Ondare Jardunaldien barruan. Udalak eta Turismo Bulegoak antolatuta. (Izen ematea: 946820164 / 688776270 / turismoa@elorrio.eus)  
*Turismo Bulegoan (11:00-12:30).*

**IURRETA Bizikleta irteera**  
Trabakuara irteera. Iurreta Txirrindulari Elkartea.  
*Iurretan, 09:00etan.*

**MAÑARIA Bisita gidatua**  
'Harri lorategia'. Europako Ondare Jardunaldien barruan, udalak eta Gerediaga elkarteak antolatuta. (Informazioa: 94 681 80 66 / ejardunaldiak@gmail.com).  
*Plazan (10:30-12:30).*

**ZORNOTZA Jaialdia**  
Mangamore Jaialdia  
*Lau gune egokitudituzte Zornotzan (11:00-20:00)*

MARTITZENA 14

**DURANGO Berbaldia**  
'La forza del destino: zoritxarra eta musika'. Carlos Imaz konpositore



TXALO PRODUKZIOAK

**ELORRIO Antzerkia**  
Mugei buruz, migrazioari buruz, giza ergelkeriari buruz eta manipulazioaren mugei buruz gogoeta egiten duen *Arizona* antzezlanaren taularatuko du Txalo Produktzioak gaur. Aitziber Garmendia eta Jon Plazaola dira aktoreak.  
*Urriak 10, barikua, Arriola antzokia, 20:00etan.*

eta pianistak *La forza del destino* operaren inguruko xehetasunak eta bitxikeriak azalduko ditu.  
*Kurutzesantu museoan, 19:00etan.*

**ELORRIO Erakusketa**  
Eskulturak Elorrioko Kaleetan erakusketaren inaugurazioa eta lehenengo bisita gidatua.  
*Iturri kultur etxean, 18:00etan.*

EGUENA 16

**DURANGO Berbaldia**  
'Uribariren enigma. Ikusten dena eta ikusten ez dena'. (Hizlaria: Jose Manuel Gonzalez de Cembellin). Europako Ondare Jardunaldien barruan. Vicente Zabala kultur elkarteak antolatuta. (Izen ematea: 689 562 756 / joseurquizu@gmail.com).  
*Andra Maria elizan, 19:00etan.*

BARIKUA 17

**BERRIZ Antzerkia**  
'Semaforoa' (Logela Multimedia).  
*Kultur Etxean, 17:00etan.*

**DURANGO Erakusketa**  
Aratz Azpiriren lanak.  
*Ezkurdi erakustaretoan, urriaren 26ra bitartean.*

**ELORRIO Bisita gidatua**  
'Solatsu Telleria, XVII. Mendeko baserria'. Bisita gidatua eta erakustaldia euskaraz, Europako

Ondare Jardunaldien barruan. (Izena ematea: 634 735 292 / info@solatsu.comzapatua 18).  
*San Agustin auzoa 50 (11:00-12:30). Urriak 18an, gazteleraz.*

ZAPATUA 18

**ELORRIO Bisita gidatua**  
'Basilikaren barrenak: ondare arkitektoniko erlijiosoa'. Udalak eta Turismo Bulegoak antolatuta, Europako Ondare Jardunaldien barruan. (Izen ematea: 946820164 / 688776270 / turismoa@elorrio.eus).  
*Udaletxean (11:00-12:30).*

**IURRETA Bisita gidatua**  
'Hilerriaren arkitektura'. Udalak eta Gerediaga elkarteak antolatuta, Europako Ondare Jardunaldien barruan. (Informazioa: 94 681 80 66 / ejardunaldiak@gmail.com).  
*Aita San Migel plazan (11:00-12:30).*

**MAÑARIA Bisita gidatua**  
'Kirikiño-tik Kirikiñora'. Udalak eta Gerediaga elkarteak antolatuta, Europako Ondare Jardunaldien barruan. (Izen ematea: 94 621 65 55 / info@hontzamuseoa.eus).  
*Hontza Museoan (11:00-12:30).*

**OTXANDIO Bisita gidatua**  
'Elur-zuloak eta hauen istorioak'. Urkiolako parkeetxeak antolatuta, Europako Ondare Jardunaldien

ZINEMA

ABADIÑO

ERROTA KULTUR ETXEA

**Film Sozialak. Bilboko Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia**  
Barikua 10: 19:00.

**Raiz de agua + Conexiones + Él**  
Zapatua 11: 19:00 (Ondoren, solasaldia Lidice Abreu zuzendariagaz).

BERRIZ

KULTUR ETXEA

**Lilo y Stitch**  
Domeka 12: 17:00.

DURANGO

ZUGAZA ZINEMA

**Karmele**  
Barikua 10: 18:00, 20:30.  
Zapatua 11: 19:00, 21:30.  
Domeka 12: 19:30.  
Astelehena 13: 17:45, 20:15.  
Martitzena 14: 17:45, 20:15.  
Eguaztena 15: 19:00.

**Vieja loca**  
Barikua 10: 20:30.  
Zapatua 11: 19:30, 21:30.  
Domeka 12: 19:30.  
Astelehena 13: 18:00.  
Martitzena 14: 18:00.  
Eguaztena 15: 19:00.

**Tron Ares**  
Barikua 10: 18:00, 20:30.  
Zapatua 11: 16:30, 19:00, 21:30.  
Domeka 12: 17:00, 19:30.  
Astelehena 13: 17:45, 20:15.  
Martitzena 14: 17:45, 20:15.  
Eguaztena 15: 19:00.

**Dolores Ibarruri. Pasionaria**  
Barikua 10: 18:00.  
Zapatua 11: 17:45.  
Domeka 12: 17:45.  
Astelehena 13: 20:15.  
Martitzena 14: 20:15.

**Capitán Diente de Sable**  
Zapatua 11: 17:00.  
Domeka 12: 17:00.

ELORRIO

ARRIOLA ANTZOKIA

**Film Sozialak. Bilboko Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdia**  
Zapatua 11: 20:00.  
Domeka 12: 20:00.  
Astelehena 13: 20:00.

ZORNOTZA

ZORNOTZA ARETOA

**Entre las higueras (J.B.G.A.)**  
Martitzena 14: 19:00.

**Enarak (J.B.G.A.)**  
Astelehena 13: 20:15.  
Eguena 16: 20:15.

barruan. (Izen ematea: 94 681 41 55 / urkiola.parke.naturala@bizkaia.eus).  
*Udaletxean (10:00-14:00).*

**ZORNOTZA Antzerkia**  
'Susto' antzezlanaren (Maite Guevararen konpainia).  
*Zornotza Aretan, 20:00etan.*

# DURANGOKO JAIK 2025

## URRIAK 10

### TXUPINAZOA

**18:30** Jaiak hasteko kuadrillen elkartzea San Fausto auzoan.

**19:00** Patxikotxuri ongi etorria San Fausto auzoan. Ondoren, kuadrillen jaitiera udaletxeko plazaraino Tabira Musika Bandarekin.

**19:30** Kalejira Santa Anatik txosnagunera.  
Antolatzailea: Txosna Batzordea

**20:00** Txupinazoa zuzenean pantaila erraldoian, Andra Mariko elizpean.

**20:15** Erromeria Errota talde durangarragaz Andra Mariko elizpean.

**21:00** Txupinazoa txosnagunean Gaztetxearen eskutik.

**21:30** Kontzertuak txosnagunean:  
*Reder, Nekktar, Zeker eta DJ Usu&Ipi*

**22:30** Kontzertua Ezkurdin:  
*Bulego.*

## URRIAK 11

**07:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin

**07:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**08:30** Sukalki txapelketa Landako Gunean.  
Laguntzaileak: Cafés Baqué eta Hiper Eroski Abadiño.

**11:00** Durangoko pilota eskolako umeen partiduak.  
San Fausto pilotalekuan  
Antolatzailea: Durango pelotazale kluba

**11:00 - 13:00** San Fausto haur marrazki lehiaketa.  
San Fausto auzoan (adina: 6-17)  
Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte

**11:00 - 14:00** Txikientzako parkea Landako Eskolan: Bebeteka, ludoteka, puzgarriak, tailerrak.  
Euria bada, Landako Eskolako frontoian.

**11:00 - 14:00** Gaztetxoentzako gunea Ibaizabal parkean: tragabola puzgarria, pista amerikarra, rokodromo puzgarria,

**kirol jolasak, tailerrak...**  
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

**11:30** Ingeleseko ipuin kontaketa Ezkurdiko kioskoan (3-8 urte).  
Euria bada, Jesuitak ikastetxean.  
Antolatzailea: Kids&us

**11:45** Tabira Musika Bandaren emanaldia J.M. Barandiaran egoitzan.

**12:00** Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

**12:00** Gazte eguneko kamiseta banaketa.  
Antolatzailea: Txosna Batzordea

**12:00** Club Deportivo Wadokan karate-ninjitsu arte martzialen kalejira Urkiola kaletik Alde Zaharrera. Ondoren, erakustaldia Ezkurdin  
Euria bada, Jesuitak ikastetxean.

**13:00** Tabira Musika Bandaren kontzertua. Andra Mariko elizpean.

**14:00** Herri bazkaria San Fausto auzoan.  
Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte.

**14:30** Gazte eguneko bazkaria txosnagunean.  
Euria bada, Kurutzia ikastolan.

**16:00 - 19:00** Txikientzako parkea Landako Eskolan.  
Euria bada, Landako Eskolako frontoian.

**16:00** Patinen freestylea Ezkurdin: tailerra eta erakustaldia.  
Euria bada, San Antonio ikastetxeko frontoian.

**16:00** Gazte jolasak txosnagunean.

**16:30** Sukalki bazkaloste musikatua DJ Ainhoagaz.  
Landako Gunean

**17:00** Adin guztientzako herri kirol parte hartzaileak Ibaizabal parkean.  
Euria bada, txosnaguneko karpan. Antolatzailea: Auzo Alai elk.

**17:00** Karropoteo Kuirra Pinondotik txosnagunera Kuir Eztandaren eskutik.  
Antolatzailea: Txosna Batzordea

**17:30** Senegaleko erritmoak M'Lomp elkartearekin

**udaletxeko plazatik hasita.**

**18:00** Umeentzako tailerrak eta dibertxoak, San Fausto auzoan.

**18:00** Mauxitxa txaranga txosnagunetik hasita.  
Antolatzailea: Txosna Batzordea.  
Euria bada, Kurutzia ikastolatik

**18:00** San Fausto zesta punta txapelketako finalak, Ezkurdin. Neskak eta mutilak gazte eta nagusi mailan.  
Ant.: Durango Jai Alai zesta-punta eskola

**18:30** Antzerkia: Markeliñe taldearen Crusoe. Aurora Abasolo parkean.  
Euria bada, Nevers ikastetxean.

**19:30 - 22:30** Blusa txaranga Sugarri fanfarreagaz Alde Zaharretik.

**20:00** Dantzaldia Aldakan taldeagaz: cumbia, funk, afrobeat, chamame, songo eta swing erritmoak. Santa Ana plazan.  
Euria bada, Plateruenean.

**20:00 - 22:00** Umeentzako disko dantza San Fausto auzoan.  
Euria bada, karpan.

**20:30** Gazte Foro Gaua Ezkurdin:  
*Play it! Sukena, DJ Kene eta Kaparrak*

**21:00** La Quinta Reserva taldea, 70eko hamarkadako musika.  
Andra Mariko elizpean.

**21:30** Afrikako musika Ghanako txarangagaz Alde Zaharretik.

**22:00** Disko dantzaldia.  
San Fausto auzoan. Euria bada, karpan.

**22:00** Kontzertuak txosnagunean:  
*Euskoprincess, Tatta & Denso eta Lafulana*

**22:30** Chaman Orkestra.  
Madalena auzoan

## URRIAK 12

### UMEEN EGUNA

**07:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:30 - 14:30** Artisau azoka.  
Eixu artisau elkartearen eskutik Ezkurdin.

**11:00** Aldibereko xake partidak umeentzat Andra Marian.  
Antolatzailea: Larrasoloeta Xake Taldea

**11:00 - 14:00** Txikientzako parkea Landako Eskolan.  
Euria bada, Landako Eskolako frontoian.

**11:00 - 13:00** Umeentzako tailerrak Ibaizabal parkean.  
Antolatzailea: Inurri Eskaut Taldea. Euria bada, San Antonio ikastetxean.

**11:00 - 14:00** Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean.  
Euria bada, San Antonio ikastetxean.

**11:00 - 14:00** Labirintoa Aurora Abasolo parkean.  
Itineraria konpainiaren eskutik.

**11:30** Buruhandiak eta Erraldoiak Alde Zaharrean KIETB Bermeoko Erraldoi Txikien Konpartsagaz eta Rio de Oro elkarteagaz.

**12:00** Poneyak eta zaldia Ibaizabal parkean.  
Euria bada, ez da egingo.

**12:00** Kalejira musika eskolako txistulariekin.

**12:00** Patxikotxuren kalejira Nevers ikastetxeko txupinero txikiek lagunduta, Ezkurditik udaletxera.

**12:30** Txupinazo txikia Nevers ikastetxearen eskutik. Ondoren, Kriskitinen emanaldia.  
Euria bada, Andra Mariko elizpean.

**12:30** Kalejira Alde Zaharretik Astarloa Otxoteagaz eta Iruñeko Ahots Taldearegaz.

**13:30** Durango Uria XXV. margo lehiaketaren sari banaketa Ezkurdiko erakusketa aretoan.  
Antolatzailea: Durangaldeko Artisten Elkarte

**14:00** Nagusientzako bazkaria Landako Gunean orkestrak girotua.

**15:00** Palestinagaz elkartasun bazkaria txosnagunean.  
Antolatzailea: Txosna Batzordea.

**16:00-19:00** Txikientzako parkea Landako eskolan.  
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**16:30** Gazteentzako jolasak eta arku-tiroa Tabira auzoan.

Euria bada, Landako Gunean.

**17:00** Bits jaia eta txokolatada Murueta Torre auzoan.  
Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkarte.

**17:00** Ikasi batxata eta ilara-dantza Muruetatorre auzoan. Ondoren, dantzaldia. Euria bada, Plateruenean.  
Antolatzailea: Murueta Torre Auzo Elkarte.

**17:00** Skate tailerrak Ezkurdi Plazan.  
Euria bada, Kurutzia ikastolan.

**17:00** Tortilla txapelketa San Fausto auzoan. Tortillak aurkezteko epea: 19:00etan. Sari banaketa 19:30ean.  
Antolatzailea: San Faustoko auzo elkarte.

**17:00-20:00** 'El Laberint' arratsaldeko saioa Aurora Abasolo parkean heldu eta haurrentzat.  
Euria bada, Nevers ikastetxean.

**17:30** Egizu Dantzan Ene Kantak taldeagaz Andra Mariko elizpean.

**17:30** Josepa Kale Kalerekin kantatu euskal abestika, Alde Zaharretik.

**20:00-22:00** Musika urbanoaren kontzertua San Fausto auzoan: Yusenk, EP Murcy, Azten eta Tierra Kritikal, bere DJagaz, Jay Scorp.  
Ant.: San Faustoko auzo elkarte

**21:00** Bertako DJ-ak Ezkurdin: Sergio Torrado eta Gorka Perez.

**22:00** Diskodantza San Fausto auzoan.  
Euria bada, San Fausto auzoko karpan.

**22:00** DJ maratoni herrikoia txosnagunean.

## URRIAK 13

### SAN FAUSTO EGUNA

**07:00** Diana JAIZALE taldeko txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:00-12:00** Durango Irratia AIREAN! 107.8 FM solasaldiak. Zuzeneko programazioa Ezkurdiko kioskotik Durangoko udal ordezkariekin eta herritarrekin.

**11:00-14:00** Txikientzako parkea Landako eskolan.  
Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**11:00–14:00** Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. Euria bada, San Antonio ikastetxean.

**11:00** Meza nagusia San Fausto elizan.

**11:00** Paella txapelketa San Fausto auzoan. Paellak aurkezteko epea: 14:00etan. Sari banaketa 14:30ean. Ant.: San Fausto auzo elkarte.

**11:30–14:30** Haurrentzako puzgarriak San Fausto frontoian.

**12:00** Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

**12:00** Paella txapelketa txosnagunean. Sari banaketa 14:30etan.

**12:30** Ume eta familientzako ikuskizuna txosnagunean: Thor magoa.

**12:30** Txalaparta, ohorezko aureskua eta artopilen banaketa udaletxeko plazan. Ondoren, Kriskitin dantza taldea. Amaitzeko: Larrain dantza. Euria bada, Andra Mariko elizpean.

**13:00** Kantu saioa Egundo taldearekin Alde Zaharretik.

**16:00–19:00** Txikientzako parkea Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**17:00** Txokolatada San Fausto auzoan. Ant.: San Fausto auzo elkarte.

**17:00** Mañaria errekaen jaitsiera Tabiratik. Ant.: Txosna Batzordea.

**17:00** Zuresku egurrezko jolasak eta joku tradizionalak Torneos Durango elkartearen eskutik Ezkurdin. Euria bada, Nevers ikastetxean.

**18:00** Umeentzako jolasak San Fausto auzoan. Ant.: San Faustoko auzo elkarte.

**18:00** Patxi eta Konpainiagaz gira eta buelta dantzatu Ezkurdin. Euria bada, Plateruenean.

**20:00** Swintronics swing eta elektronika fusio saioa Andra Mariko elizpean.

URRIAK 17

**17:00** Txiki Rock Euskal rockaren kanturik



Bulego taldeak joko du Ezkurdin, gaur.

esanguratsuenak familia osoaren neurrira, Andra Mariko elizpean.

**17:00** Baloi Eseriko txapelketa merkatu plazan. Ant.: Torneos Durango.

**19:00** Tortilla txapelketa txosnagunean. Sari banaketa 20:30ean.

**19:00** Pilota Fest Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Neskak pala gomazko Bizkaiko klubaren arteko txapelketa: Durango – Olgetan. Ander Martin Estenaga Durangoko Pelotazale Klubeko entrenatzaile izandakoari omenaldia. Ondoren, pilota partidua: Titin III eta Ander Antxia – Unai Agirrezabal eta Mikel Goñi. Sarrerak: 10 euro. Salgai: Urrats Kafetegian, Alex Taberna, Mesoi Tabernan eta frontoiko leihatilan. Antolatzailea: Durango Pelotazale Kluba.

**19:30** Fanfarreen kalejira norgehiagoka berotzeko: Sugarri fanfarrea Otamotzenatik Herria auzo elkarteak lagunduta. Gazteleku txaranga Madalenatik Auzo Alaik lagunduta.

**20:00** Durangoko abesbatzen kontzertua Santa Ana elizan: *Zezili, Bogoroditsie, Astarloa Otxotea eta Izar Gaztea.*

**21:30** Fanfarreen arteko norgehiagoka Andra Mariko elizpean.

**22:00** Kontzertuak txosnagunean: *Ødei, Streetwise eta Les Testarudes.*

**22:00** Bertsolariak San Agustin Kultur Gunean: Irune Basagoiti, Unai Iturriaga, Julio Soto, Beñat Gaztelumendi, Onintza

**Enbeita eta Miren Artetxe. Gai-jartzailea: Maite Berriozabal.** Gonbidapen zenbakituak Arte eta Historia Museoa, urriaren 10etik aurrera.

**23:00** Kontzertua Ezkurdin: *Gatiburen azken bira.*

URRIAK 18

**MOZORRO EGUNA** Etxera eguna txosnagunean. Txosnetako mozorroaren gaia: Ipuinak eta kondairak

**07:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**11:00–14:00** Txikientzako parkea Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**11:00–14:00** Haur tailerrak. ASEBIER elkartearen eskutik Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**11:00** Xake txapelketa federatu gabeentzat Ezkurdin. Izen-ematea txapelketa hasi baino ordu erdi lehenago edo *ajedrez.durango@gmail.com* Ant.: Larrasoloeta Xake Taldea

**12:00** Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

**12:00** Kalejira trikitilariekin Txiri-txiri taldearen eskutik.

**12:00** XVI. Patata tortilla txapelketa Landako Gunean. Mailak: 15 urtetik beherakoak / 16 urtetik gorakoak. Plazak zozketa bidez banatuko dira irailaren 30ean.

**13:00** Aperitibo musikatua Luhartz taldeagaz Andra Mariko elizpean.

**15:00** Elkartasun bazkaria txosnagunean. Ant.: Txosna Batzordea.

**16:00–19:00** Txikientzako parkea Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**16:00** Kontzertua txosnagunean: *Heitxi eta Alain.*

**18:00** Kalejira Sugarri fanfarreagaz.

**18:30** Aireko akrobaziak eta zirkua disko musikaren erritmora Pakipaya konpainiaren “Shake shake shake” ikuskizun sarituagaz Ibaizabal parkean.

Euria bada, ikuskizuna bertan behera geratuko da.

**18:30** Mozorro desfile koloretsua. Batu taldetxo bat eta parte hartu Madalenatik Andra Mariko elizperaino. Bukaeran, sari zozketa mundiala. Euria bada, Andra Mariko elizpean. Izen ematea urriaren 1etik 17ra *www.durango-udala.eus* webgunean.

**20:00** Erromeria Luhartz taldearekin Andra Mariko elizpean.

**21:30** Kontzertua txosnagunean: *Maruxak eta Akerbeltz erromeria.*

**23:00** Nuevo Versailles orkestra Ezkurdin.

**23:00–02:00** Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa Landako Guneako plazan (txosnagunean). Ant.: Mankomunitateko Drogamenpekotasunen Prebentziorako Arloa.

URRIAK 19

**07:00** Diana Jaizale taldeko txistulariekin.

**07:30** Zezenak Dira dultzaineroekin.

**10:00** Arku-tirorako Txapelketa Landako Gunean: Bizkaiko lehen Raus autonomikoa eta San Faustoko arku-tiro txapelketa. Ant.: Durangoko arkulariak.

**11:00** Nesken eta mutilen San Fausto XIII. Padel txapelketako finalak Landako kiroldegian. Antolatzailea: Padelzaleak.

**11:30–14:30** Txikientzako parkea Landako eskolan. Euria bada, Landako eskolako frontoian.

**11:30–14:30** Gaztetxoentzako jolasak Ibaizabal parkean. Euria bada, San Antonio ikastetxean.

**12:00** Makillaje tailerrak Otamotzena Parkean.

**12:00** Poneyak eta zaldiak Tabira parkean. Euria bada, ez da egingo.

**12:00** Kalejira Musika Eskolako txistulariekin.

**12:00** Marrazki Lehiaketako sari banaketa San Fausto auzoan.

Ant.: San Faustoko auzo elkarte.

**12:30** Herri kirolak Ezkurdin: Hodei Ezpeleta, Alex Txikon, Bihurri, Goizeder Baltza, Udane Ostolaza, Karlos Aretxabaleta, Ainhoa Larrinoa eta Aratz eta Enara Beltza ume aizkolariak. Euria bada, Landako Gunean.

**12:30** Taberna ibiltariagaz kantu saioa udaletxeko plazan.

**17:00** Animazioa trikitixagaz pertsona nagusien egoitzetatik.

**17:00** Dantza modernoa, garaikidea eta urbanoa L'Atelier dantza eskolaren eskutik Ezkurdin.

**17:30** Clowna, aireko akrobaziak, ekilibrismoa eta barreak Otamotzena parkean Rojo Telón taldeagaz. Euria bada, Nevers ikastetxean.

**18:00** Gozatu zinearen historiako kantarik goxoenez Zinema Paradise saioan, Andra Mariko elizpean.

**18:30** Kalejira Dunbots fanfarreagaz Alde Zaharretik.

**19:30** Patxikotxuri eta jaiei agur esateko kalejira udaletxeko plazatik hasita tren-kotxera zaharretaraino.

**20:00** Jaien amaiera su artifizialekin tren-kotxera zaharretan.

URRIAK 25

**20:00** Durango Txistu Kontzertua 2025 Landako Gunean. 30. Urteurrena. Ant.: Silbaberri Txistu Elkarte.

URRIAK 26

**08:00** Durangoko II. Mendi Martxa. Izena emateko: *www.kirolprobak.com* Ibilbide luzea (25 km.): Irteera (Landako Gunetik): 08:00 Ibilbide laburra (14 km.): Irteera (Landako Gunetik): 09:00. Ant.: Alpino Tabira Mendi Kluba.

**10:00** Mañaria ibaiaren garbiketa. Hasiera: Pinondo parkean.

**12:00** 56. Umeen Euskal Jaia. Talde guztiak Landako Gunean elkartuko dira, kalejira egingo dute eta ondoren alardea Ezkurdi plazan. Euria bada, Landako Gunean. Ant.: Tronperri Dantza Taldea eta Txorixtu Alai Dantza Taldea.

# "Disfrutatzen dudanean neure onena ematen dut"

**AITOR AJURIA** MENDI KORRIKALARIA

Aitor Ajuria sasoi betean dago; Otxandioko mendi korrikalariak hiru garaipen eskuratu ditu hiru asteburutan: Untzillaitz Zuzen, Gorbeia Suzien eta Anboto Kilometro Bertikala

**Maialen Zuazubiskar** OTXANDIO

Azken asteotan Aitor Ajuriak ez du aurkaririk izan mendiko lasterketetan. Otxandioko korrikalariak hiru garaipen eskuratu ditu hiru asteburutan jarraian. Irailaren 20an Untzillaitz Zuzen igoera irabazi zuen, irailaren 27an Skyrunner World Series zirkuituko Gorbeia Suzien lasterketa, eta joan zen asteburuan Anboto Kilometro Bertikala.

**Hiru asteburu eta hiru garaipen. Zelan zaude, Aitor? Esan daiteke zure sasoirik onenean zaudela?**

Egia esanda, oso pozik nago lorturiko denagaz. Nire sasoi puntuari dagokionez, beti izan dut antzekoa. Baina esan beharra dut burua hobeto dudala batzuetan beste batzuetan baino. Gaur egun pozarren bizi naiz eta horrek asko laguntzen du. Korrika egitea beste plano batean geratzen denean, errazago lortzen ditut emaitza onak.

**Iaz Arrazolako plazan, bertikalean bigarren postua lortu eta gero, zuretzat**



Aitor Ajuria Arrazolan, Anboto Kilometro Bertikaleko txapela buruan.

**Anboto berezia zela esaten entzun genizun, eta beste garaipenen bat aldatuko zenuela Anbotokoa lortzearen.**

Artzaina naiz eta ardiak beste bailaran ditugu, Anbotoren beste aldean. Otxandiokoa izanda, An-

boto mendia hur-hurran dugu. Gainera, 17 urteagaz etorri nintzen lehenengoz Anboto Kilometro Bertikalean parte hartzera, eta dagoeneko 27 ditut. Ia edizio guztietan parte hartu dut eta hala-koetan kariño berezia hartzen

diezu lasterketei. Hainbeste bider parte hartu eta gero, bertan inoiz ere ez nuela irabaziko pasatu zitzaidan burutik. Bajatzen hobeto moldatzen naiz igotzen baino, baina tira, azkenean lortu dut garaipena. Hainbeste garaipen ere ez dut, baina dudarik barik edozein aldatuko nuen Anbotokoagaz.

**Esan duzu ez direla asko izan, baina lehengo astean garaipen garrantzitsu bat lortu zenuen. Skyrunner World Series zirkuituko Gorbeia Suzien lasterketa irabazi zenuen Zeanurin. Lasterketa hasi aurretik, jende askoren kinieletan agertzen zen zure izena. Zuk hor aurrean ikusten zenuen zeure burua?**

Normala da estimatzen nauen jendearen kinieletan gorengo postuetan egotea. Baina lasterketa horretan nik neuk ere ikusten nuen neure burua lehenengo postuetan, baina tira, irabaztea ez dago beti norberaren eskuan. Ez dakizu beste lehiakideak zelan egongo diren. Gorbeia Suzien proban neure onena eman nuen eta horrek irabazteko balio izan zidan. Ezin dut gehiago eskatu.

**Zeanuriko proban argi utzi zenuen disfrutatzen zenbiltzala. Une batzuetan agur keinuak ere egin zenizkion kamerari, irribarretsu. Baina, aldi berean, oso kontzentratuta zindoazela erakutsi zenuen.**

Halako keinuak hasieran egin nituen batez ere. Amaiera aldera, ez nengoen keinuetarako; atzera begira joan nintzen, baten bat ba ote zetorren ikusteko. Baina pozarren aritu nintzen, bai. Horre-

lako naiz. Disfrutatzen dudanean, neure onena ematen dut. Ez kirolean bakarrik, bizitzako arlo guztietan. Hainbeste urteren ondoren, lortu dut lasterketetan poz hori erakustea. Gorbeian itzelean sufritu nuen, azkenengo hoge minutuetan batez ere, baina eustea lortzeko kapaz izan nintzen.

**Kepa Larreari eskaini zenion garaipena. Zer da zuretzat Kepa?**

Kepa Larrea lagun handi bat da, familiako laguna betidanik. Hasi nintzenean berak lagundu zidan entrenatzen. Orain beste entrenatzaile bat (Beñat Agirreurreta) dudana arren, urte askoan Kepak entrenatu nau. Gauzak irteten ez zirenean, konfiantza itzela transmititzen zidan. Eta, gainera, ezeren truke eskaini dit bere denbora, eta hori itzela da. Horrek asko betetzen du.

**Hemendik aurrera, zer? Baduzu lasterketarik begiz jota?**

Ikusiko dut, baina oraingoz ez dut lasterketa askorik buruan. Lasterketetan parte hartzeak asko betetzen nau, baina egunerokotasunean mendian ibiltzea dut batez ere gogoko. Disfrutatzen jarraitu gura dut, horixe delako garrantzitsuenak.

**"EDOZEIN GARAIPEN ALDATUKO NUEN ANBOTOKOAGAZ. BAINA AZKENEAN LORTU DUT"**

## Gu Lagunakek eta Mendibeltzek bat egin dute Palestinaren alde

**ARETO FUTBOLA** Salgai dago talde biek erabiliko duten kamiseta solidarioa. Baturiko dirua UNRWari emango diote



Talde biek aurtan bigarren ekipazio modura erabiliko dute kamiseta.

**J.D. DURANGO**

Durangoko Mendibeltz eta Gu Lagunak areto futbol taldeek bat egin dute ekimen solidario batean: Palestinaren aldeko kamiseta bereziak egin dituzte. Klub biek bigarren ekipazio modura jantziko dituzte denboraldi honetan, eta, gainera, kamisetak salgai ipini dituzte. Baturiko dirua UNRWA erakundeari emango diote, Gazara laguntza eraman dezan. Kamisetak tamaina guztietan daude esku-argarri. Prezioak honako hauek dira: lepoan izenik barik, 25 euro; izenagaz edo zenbakiagaz, 28 euro; izenagaz eta zenbakiagaz, 30 euro.

Eskaerak datorren asteko martitzenera arte egin daitezke, klub bietako Instagram kontuetan edo 686 397 750 edo 646 934 683 telefonoetako whatsappen.

## Zaldibarko eliz atariko pilota txapelketa domekan amaituko da

**PILOTA** Bereziartua-Urizar eta Pascual-Barrutia bikoteen artean erabakiko da aurtengo aldiko txapelketa

**J.D. ZALDIBAR**

Zaldibarko eliz atariko pilota txapelketako finala domekan jokatuko da, 12:30ean. Gorka Bereziartua-Gartzen Urizar eta Igor Pascual-Eneko Barrutia bikoteen artean dago aurtengo txapelketa. Aurretik, hirugarren eta laugarren postuak erabakiko dituzte, Javier Castrillo-Jon Urresti eta Ander Lizarralde-Xabier Martinez bikoteen artean.

Eliz atariko txapelketak 29. aldia bete du aurtan eta zortzi bikotek parte hartu dute, denak Zaldibarkoak.



Zaldibarko eliza ataria.



Titin III.ak eta Mikel Goñik pilota goxoagaz jokatuko dute.

## Salgai daude Titin III.a eta Goñi elkarren aurka ikusteko sarrerak

**PILOTA** Urriaren 17ko pilota jaialdian Titin III.ak Ander Antxia izango du atzelari, eta Goñik Unai Agirrezabal

**J.D. DURANGO**

Durango Pelotazale Klubak ikusmina piztuko duen pilota jaialdia antolatu du urriaren 17rako, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Partidu nagusian, zale orok ezagutzen dituen pilotari bi lehiatuko dira aurreko koadroetan: Titin III.a eta Mikel Goñi. Errioxarrak Ander Antxia abadiñarra izango du atzelari, eta oronoztarrak Unai Agirrezabal durangarra. Pilota goxua-gaz jokatuko dute.

Pelota Fest jaialdia nesken paleta gomako partiduategaz hasiko da, 19:00etan. Bizkaiko

kluben arteko txapelketaren barruko neurketa izango da.

### Ander Martini omenaldia

Partidu bien artean, uztailen hil zen Ander Martin Estenaga gogoratu eta omenduko dute. Martinek lan handia egin zuen pilota bultzatzen, eta Durango klubeko entrenatzaile ere izan zen.

Sarrerak (10 euro) Urrats kafetegian, Alex tabernan eta Mesoi Berrian eskuratu daitezke; baita Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan ere, eguaztenetan, 18:00etatik 21:00etara bitartean.

## Durangoko Master Serieseko finala, jokoan

**ZESTA-PUNTA** Urreistik eta Zabalak Barandikaren eta Lekerikaren kontra jokatuko dute

**J.D. DURANGO**

Astelehenean Durangoko Master Serieseko finalak jokatuko dira Ezkurdi Jai Alai. 19:30ean hasita, Urreisti-Zabala eta Barandika-Lekerika bikoteen artean egongo da txapela. Finalerdietan Olharan-Ibarluzea eta Erkiaga-Del Rio bikoteak kanporatu zituzten, hurrenez hurren. Jaialdia emakumeen erronkagaz hasiko da; Jai Alai Leagueko irabazleak —Elaia Gogenola eta Maia Goikoetxea— eta azken Euskotren Winter Serieseko garaileak —Helena Barrenetxea eta Arai Lejardi— aurrez aurre izango dira.



Finalerdietako irudi bat. JAI ALAI



Paueko Bonnin eta Caparrus, Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. DUJA

## Zesta-puntako txapelak Markinara, Berriatuara edo Pauera joango dira

**ZESTA-PUNTA** Zapatu honetan San Fausto txapelketako finalak jokatuko dituzte. Sarrera doakoa da, lekuak bete arte

**J.D. DURANGO**

Zapatu honetan 40. San Fausto Zesta-punta Txapelketako hiru finalak jokatuko dira Ezkurdi Jai Alai pilotalekuan. Bikote denak Markinakoak, Berriatuakoak edo Frantziako Paue herrietakoak dira. Jaialdia 18:00etan hasiko da.

Gazte mailan Markinako Jokin-Kirmen bikoteak Berriatuko Uribesalgo-Aratz bikotea izango du aurkari. Ondoren, emakumeen finala hasiko da. Bikote biak Berriatukoak dira: Elaia-Maialen/Ihart-Maia. Lehenengoek Helena Barrenetxea durangarra eta Fri-

da Watkins zumaiarra kanporatu zituzten finalerdietan: 15-10/15-9. Azkenik, gizonen 25. urtez azpiko finalean Markinako Javier-Atain eta Paueko Bonnin-Caparrus bikoteek neurtuko dituzte indarrak. Joan zen zapatuko lehenengo finalerdian markinarrak iazko txapeldunordeak kanporatu zituzten: Astelarra-Urrutxua (Gernika). Bigarren finalerdian, frantziarrek ezusteko handia eman zuten Amets-Goitia iazko txapelduneri irabazita. Finalak ikusteko sarrera doakoa da, lekuak bete arte, DUJA eskolako antolatzaileen esanetan.



## JOKALDIA

**GOTZON GOMEZ BARRENETXEA** ERRUGBIA

## Ingalaterra bidea erakusten ari da

Ingalaterran bukatu berri den emakumezkoen Munduko Txapelketak agerian utzi du emakumezkoen errugbian sakoneko aldaketak ari direla gertatzen. Aurtengoak aurreneko edizioetako marka guztiak hautsi ditu eta ikusleek erositako sarreraren kopuruak, Zeelanda Berrian, aurreko Munduko Txapelketakoa hirukoizten du. Arrakastaren adibide garbiena emakumezkoen Munduko Txapelketa Ingalaterran jokatzen azken aldian (2010) finala Twickenhamen ondoko zelaian jokatzen bazen, 13.253 ikuslerekin, oraingoan partida erabakigarriena errugbiaren katedralean jokatzen zen, 81.885 ikusleren aurrean, aipatu behar da anfitrioiaren finalean izan zela. 5,8 milioik sintonizatu zuten Munduko Kopako finala BBCn. Emakumezkoen errugbi partidari ikusiena izan zen Erresuma Batuko telebistan. Bigarren aldaketa nagusia, irabazlearen aldaketa. Ingalaterrak edizio honetan bere nagusitasuna erakutsi du, finalean Ka-

nada 33-13 mendean hartuz. Dagoeneko 33 partida jarraian daramatza galdu barik. Ingelesak 11 urte itxaron behar izan dituzte korroa berreskuratzeko. Sakoneko beste aldaketa bat profesionalizazioaren emandako urratsak izango lirake. Bide honetan Ingalaterra aitzindaria dugu, duela ia hamarkada bat kontratu profesionalak sinatu zituen bere jokalariekin, gizonezkoen antzera. Ahalegin ekonomiko horrek, itxuraz, onurak eta fruituak ekarri dizkio. Baina bide hau zabaltzen ari da ala Ingalaterrako kasua uharte bat da itsasoaren erdian? 2019ko urtarriletik aurrera, emakumezkoen errugbi selekzioa 28 jokalaririk onenek 27.000 liberako lanaldi osoko kontratuak dituzte urtean (30.000 euro inguru). Soldata astronomikoak izan gabe, 'sare arrosa' (selekzioen errugbian ezagutzen diren bezala) kiroletik bizi daitezke. Nahiko normala izan beharko lukeena, tristuraz, ezohiko pribilegioa da. Ingalaterrako emakumezkoen errugbi selekzioa profesionali-

zatuta dagoen munduko bakarra da. Beste herrialde batzuek ingelesek zabalduetako bideari jarraitu diote, Frantziar Elite izeneko txapelketan 10 talde lehiatzen dira, eta bertoko jokalariek askok profesionalizazio bidea hasita dute. 2022an Zeelanda Berrian Super Rugby Aupiki delakoa sortu zuten eta horietako asko soldatapekoak dira, Australian ere NRL Women's Premiership oraindik erdi-profesionala den txapelketa martxan ari da. Azken urteetan Durango Rugby Taldearen harrobitik maila handiko jokalariek irten dira, horren adibide garbiena lau jokalaririk ditugula Getxo Rugby taldean ohorezko mailan jokatzen, Joana Murray, Ane Diez, June Larrañaga eta Naroa Azpitarte. Eider Garcia berriztarra ere, Ingalaterran Munduko Kopan izan da Espainiako selekzioarekin, eta egun Frantziako Lyon taldean ari da jokatzen. Agian hastapena baino ez da, baina argi dago emakumezkoen errugbian aldaketak datozela.

# Zabalegi eta Arkarazo nagusi Sorginen Lasterketan

M.Z. ATXONDO

Asteburuan Durangaldeko Kopako beste proba bat jokatu zen, Sorginen Lasterketa. Hotzari eta eguraldi eskasari aurre eginda, korrikalari guztiek meritua handiko lana egin zuten. Gizonezkoetan Mikel Zabalegi ordiziarra nagusitu zen, 2:07:35eko denboragaz. Imanol Goñi sailkatu zen bigarren, eta Irazu Aranburu mallabitarra hirugarren. Emakumeetan eskualdeko korrikalariak erakustaldia eman zuten. Ainara Arkarazo abadiñarrak irabazi zuen. Itsasne Urkiaga zornotzarra helmugaratu zen bigarren, eta Leire Uribe otxandiarra hirugarren. Aurten lasterketa laburra ere egon da. Gizonezkoetan Aner Zuluaga igorreztarra nagusitu zen, eta emakumezkoetan nazioartean erreferente den Malen Osa oñatiarra.



Ainara Arkarazo helmugan. MAIALEN ZUAZUBISKAR



Mikel Zabalegi. M.Z.



Malen Osa lehenengo metroetan. M.Z.



Lasterketa luzeko irteera. M.Z.



500 bat korrikalari izan ziren proba bietan. M.Z.



Aitor Ajuria Anboton gora. M.Z.

## Aitor Ajuria eta Malen Osa bizkorrenak Anbotoko igoeran

M.Z. ATXONDO

Jendetza batu zen zapatuan Arrazolan. Bertan Anbotoko Kilo-metro Bertikala jokatu zen eta faboritoek ez zuten hutsik egin. Gizonezkoetan Aitor Ajuria otxandiarra sasoi betean dagoela erakutsi zuen eta nagusitasunez irabazi zuen, 38:51ko denboragaz. Aitor Ugartek egin

zuen bigarren, eta Iñigo Alzolak hirugarren.

Emakumezkoetan Malen Osa oñatiarrak irabazi zuen, 47:01eko denboragaz. Lide Urrestarazu sailkatu zen bigarren, eta Leti Bullido hirugarren. Oihana Azkorbebeitia abadiñarrak bosgarren egin zuen eta bera izan zen garaile neska beteranoen artean.



Malen Osa. M.Z.



Iñigo Alzola. M.Z.



Oihana Azkorbebeitia, Oihane Unzalu eta Maite Zabaleta. M.Z.



Duatloi herrikoiko kideak. L.M.



Duatloiko irabazleak. L.M.



Duatloiko irabazleak. L.M.



Patafina taldeko kideak. LUCIA MERUELO

# Mugarrak antolaturiko mendi duatloiak arrakasta handia izan du

Asteburuan, Mugarra Duatloi Taldeak antolaturiko Durangoko III. Mendi Duatloia jokatu da, egun osoko egitarauagaz. Beste behin ere, duatloiak arrakasta itzela izan du, baita honen barruan antolatu dituzten duatloi herrikoiak eta umeen duatloiak ere

**M.Z. DURANGO**  
Paul Bereziartua durangarrak eta Ainhoa Marquinez idiaza-baldarrak irabazi dute asteburuan Durangon lehiatu den mendi duatloia. Hartara, mendi duatloien Euskadiko txapeldun ere geratu ziren. Bereziartuak hirugarrenez jarraian irabazi zuen etxeko duatloia. Mugarra

Triatloi Taldeko duatloilariak eta Josu Urrestarazu bigarren

**PAUL BEREZIARTUAK HIRUGARRENEZ JARRAIAN IRABAZI DU ETXEKO DUATLOIA**

sailkatuak lehia estua izan zuten lasterketa osoan zehar. Bereziartuak ondo ezagutzen du etxeko zirkuitua eta hori funtsezkoa izan zen garaipena eskuratzeko.  
Emakumezkoetan Ainhoa Marquinezek lortu zuen garaipena, Nekane Praderaren eta Maite Murgiaren aurretik.



Duatloi herrikoiko irteera. L.M.



Duatloi herrikoiko irteera. L.M.



Duatloi herrikoia. L.M.



Duatloi herrikoia. L.M.



Duatloi herrikoia. L.M.



Duatloiko irteerako argazkiak. L.M.

KOMIKIA UNAI GAZTELUMENDI



GUARDIAKO BOTIKAK

| URRIAK 10, BARIKUA                          |
|---------------------------------------------|
| Sagastizabal, Askatasun etorb. 19 - Durango |
| Ruiz, El Alto-Bide Zahar 14 - Zornotza      |
| URRIAK 11, ZAPATUA                          |
| Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta      |
| Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza           |
| URRIAK 12, DOMEKA                           |
| Balenciaga, Ezkurdi plaza 8 - Durango       |
| Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza           |
| URRIAK 13, ASTELEHENA                       |
| Gaztelumendi, J.A. Abasolo 2 - Durango      |
| Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza           |
| URRIAK 14, MARTITZENA                       |
| Irigoien, Bixente Kapanaga 3 - Iurreta      |
| Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza           |
| URRIAK 15, EGUAZTENA                        |
| Sarria, Sasikoa 17 - Durango                |
| Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza           |
| URRIAK 16, EGUENA                           |
| Unamunzaga, Muruetatorre 2C - Durango       |
| Goiria, Sabino Arana 6 - Zornotza           |

24 orduez zabalik dauden farmaziak dauden zerrendan.  
22:00 arte zabalik daudenak ere ikusteko: [www.anboto.org/botikak](http://www.anboto.org/botikak)

ZORION AGURRAK

**GOZATU GOZOTEGIA**  
Ermodo, 11 DURANGO  
Tel.: 946 201 663  
[gozatudurango@gmail.com](mailto:gozatudurango@gmail.com)  
661 40 14 00  
Gozatu Gozotegia  
[gozatugozotegia](#)



**Zuhaitz**  
Zorionak, **Zuhaitz!** 7 urte egin dozuz!  
Mosurik handienak maite zaitugun danon partez!



**Ane Jainaga**  
Gaur, urriak 10, Ane Jainagak 24 urte egingo ditu. Zorionak!



**Oier**  
Gure etxeko txikixenan hirugarren urtebetetzie urrixen 12xen. Zorixonak, Oier!

Urte askotarako!

**Zorionak Jon** (1035.alea)! Hamabostean behin zotz egiten dugun tarta zuri egokitu zaizu. Oparia eskuratzeko txartela gura duzunean jaso dezakezu lurretako gure egoitzan.

Zoriondu itzazu lagunak eta senitartekoak; hiru bide dituzu:

**Internet**  
Anboto.org-en erabiltzailea sortu eta [Anboto.org/](http://Anboto.org/) zorionagurrak helbidean sartu zorion agurra.  
Urtebetetze egunean bertan argitaratuko da webgunean eta barikuan Anboto paperean.

**Posta elektronikoa**  
Mezua bidali [zorionagurrak@anboto.org](mailto:zorionagurrak@anboto.org) helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, herria, urteguna eta gura duzun testua.

**Ordezkaritzak**  
Etorri zaitzez Anbotoren ordezkartzara edo deitu 946 232 523 telefonora.



**Maria Pilar eta Miguel Angel**  
Urriaren 11n Maria Pilar Alberdik eta Miguel Angel Alberdik 54 urte egingo dituzte ezkontuta. Eta urriaren 12an Maria Pilarrek 76 urte egingo ditu. Zorionak!

**Berrizko Agenda Kulturala**

Programazioa

"Semaforoa" (Haur antzerkia)  
"El Cautivo" (Zinema)  
"Bala" (Musika)  
"Xpectro" (Zirku garaikidea)

Urriak 17, 17:00  
Urriak 19, 19:00  
Urriak 23, 21:00  
Urriak 25, 19:00

**LOTALDIA**  
**Urriak 24 18:00h.**  
Iguin-kantaketa eta kantaketa

peru magdalenaren kontaketa poetikoa eta ibonrg-ren lo-kantekin osaturiko emanaldi goxoa.

eremu zainduan etzan, entzun, eta gogoak bidaiatu dezan gonbita. lo ere egin daiteke.

\*adin gustietarako entzunkizuna, aldeaz aurreko izen-ematearekin



Durangaldeko  
**Okm** gida

## **Zabaldu zure negozioa lau haizeetara**

*Durangaldeko OKm gida  
erakusleiko ezin hobea duzu  
eskualdeko merkataritza  
eta zerbitzuetan.*

*Jarri gurekin harremanetan konpromezu bariak  
688 731 402 telefonoan*

**Okm:**  
batzen gaituen  
distantzia

[www.anboto.org/gida](http://www.anboto.org/gida)





LAU-HORTZA

SERGIO  
MURILLO CORZO

## Adimen Artifiziala arimaz janztea

Lanerako bidea irratia entzuteko aprobetxatzen dot. Musikak eta berbek betetzen dabe tartetxo hori. Gehienetan arreta gehiegi jarri barik entzuten dot... baina munduko lekuren baten pertsona bat jardunean dabilena jakiteak neurri bateko lasaitasuna emoten deust. Horrelako joan-etorri baten, Adimen Artifiziala abestiak sortzeko eta abesteko gai dana esan dau irratsaioa gidatzen dauan esatariak. Ezin ei da antzemon giza abesti batekiko aldeia.

Zer pentsatu emon deust horrek. Badakit Adimen Artifiziala gizaki zehatz batzuek programatu dabena, beraz, hori ere giza-sorkuntzat jo geinkela. Giza-aurrerabidean hurrengo pauso handietako baten gakoa izan daitekeanaz ere konsziente naz. Baina ba al dauka arimarik? Esataria Adimen Artifiziala bada, zein da gidaria?

Gizarte zerbitzuetan askotan esaten dogu, teknikoki zerbitzurik onenak izanda ere, pertsonok gure sentipen berberak izateko gai diran beste gizabereen beharra daukaguna... gure berezitasuna eta egiazkotasuna aintzatesten dabezanak. Aintzatsi, sentitu... adimenagaz baino, arimaz egiten doguzan giza-jarduerak dira. Eta niretzat daukat, Adimen Artifizialaren garapenari jarri behar deusagun lehenengo baldintza horixe dala, sortzetik, programatzen danetik, arimaz janztea, giza-mugez, erizpide etikoz.

AKUILUA

# "Artxiboetako dokumentuetan agertzen diren lekuak bisitatzera joaten naiz"

HIDE DOHINO HISTORIALARIA

Oñatin bizi den arren, bere euskara entzunda Euskal Herriko edozein lekutakoa izan liteke; euskara aztertu eta bizi duen japoniarrek Durangaldea bisitatu du asteon

Jone Guenetxea IURRETA

Hide Dohino historialaria irribarre bategaz sartu da ANBOTOk bulegoan, Kristina Mardaras anfitrioi duela. Euskararen eta euskal historiaren ikerlari sutsua Durangaldea ezagutzera etorri da eta arretaz entzun ditu Durangaldeko hedabidearen jardunaren inguruko azalpenak. Apunteak ere hartu ditu. Horrela ikasi du euskaraz txukun eta natural berba egiten. Urrian Japoniara bueltatuko da tesia lantzerako.

Zerk ekarri zaitu Euskal Herrira?

Txikitatik historia gustatzen zait eta horixe da nire pasioa. Bestalde, unibertsitatean gaztelania ikasi nuen eta hemen go gauzei buruz ere irakurri nuen. Baina ez nuen ondo ulertzen. Jendea eta lekuak ezagutu gura nituen. Liburuak irakurtzea ondo dago, baina gauzak ulertzeko gogoak ekarri nau hona.

Zerk erakarri zaitu gehien Euskal Herritik?

Japoniako hiri handi batekoa naiz. Han familia inguruan bizi gara eta ez dugu jende askorik ezagutzen. Historia ikertzen eta ikasten nuenean, ezin nuen imajinatu herri txikietako bi-



**"JAPONIAKO HIRI HANDI BATEKOA NAIZ. HAN FAMILIAN BIZI GARA, JENDE ASKO EZAGUTU BARIK"**

zitza. Beti galdera bera zetorkidan burura: zelakoa ote da herri txiki bateko bizitza? Hori bizi egin behar da, bestela ezin da ulertu Aro Modernoko historia, ezta Erdi Arokoa ere. Horixe bizitzera etorri naiz. Euskal Herrian leku asko ezagutu duzu. Nondik nora ibili zara?

Astia dudanean, herririk herri eta auzorik auzo ibiltzen naiz. Artxiboetan irakurritako dokumentuetan agertzen diren lekuak bisitatzera joaten naiz. Esate baterako, joan zen astean Zumarragako matxinadari buruz irakurri nuen eta inguruko auzoetara joan nintzen. Beasain ingurura ere joan nintzen.

**Euskaraz berba egiten duzunean euskalki nahasketa handia igartzen zaizu. Non ikasi duzu euskara?**

Oñatin bizi naiz, baina Euskal Herrira bizitzera etorri baino lehenago Lekeition eta Diman ere izandakoa naiz. Gainera, Nafarroako euskalkia ikasteko Zugarramurdi ingurura joaten naiz.

**Jende askok euskara gatxa dela dio eta argudio hori erabiltzen du ez ikasteko. Zer esango zenieke?**

Ez da gatxa. Beti esaten dut hizkuntza bat norberak ikasten duela, baina ingurua oso garrantzitsua dela. Ingurua aldatzen ez baduzu, ezin duzu hizkuntza bat ikasi.

**Abadiñoko euskararen, 'hika be egiten dok' esango lizuke baten batek.**

Bai, egiten dinat, bai. Astean behin juntatzen gintunan toka eta noka praktikatzeko Oñatin. Kuadrillakoak entzuten nitinan eta horregaitik animatu nindun. Gura barik be ikasi dinat.

**Noiz itzuliko zara Japoniara?**

Urri amaieran. Han tesia idatziko dut. Ahal dudanean bueltatuko naiz berriro hona, artxiboetan irakurri, irakurririko hori dokumentatu, euskalkiak ikasi... Denerik egin behar da: ikusi, entzun, berba egin, ibili, irakurri... Buruko errota beti martxan.



Ikusi bideoa



Argia, espazioa eta ikuspegi paregabeak dituzten atikoak.

Azken fasea, lanetan.

**Azken atikoak  
SAN ROKE BARRIAN, Durangon.**

2, 3 eta 4 logelako etxebizitzak. Ikuspegi irekiak eta terraza zabalak.

Etxebizitza pertsonalizagarriak. Sortu etxe bat zure beharren arabera.

Gune komun pribatuak: gimnasioa, ludoteka eta coworking gunea.

Informazio gehiago:  
**sukia.com** 946 462 041

**sukia**  
Zure etxean zaude. Estás en tu casa